

www.noaia.com

Noaia !!



Lanbide bat ikasteko
aukera aproposa, Atallun

Herritarrek mintzo bitez



DIGITAL+

antenas Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.


Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99

info@antenastelemar.com



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE



Noaua! Kultur Elkarteko bazkide egiten bazara, "Uurbilgo baserriak eta baserriak" liburua jasoko duzu duan

Izen-deiturak: _____

Jaiotze data: _____

Sexua: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea: _____

Hemak: _____

Posta kodea: _____

Bizibidea: _____

Tel: _____

e-mail: _____

Bankatxea: _____

Kontu korronteko zkia (zuzunizkoak)

Bazkide KUOTA: 36€ (Uztailan kobratuko da kontu korrontatik)

Albiste iruditan!

Gerontologikoa, beranduenez 2013rako prest

Negu amaieran hasi ziren orain arte Kalezarko mojen komentua izan zena behe-
ra botatzen, gerora bertan eraikiko baita 148 lagunentzat tokia izango duen gerontologikoa. Usurbilgo Udalak, Matia Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak obrak hasteko adosturiko akordioari esker lanak abian dira eta Udalak eraikin berria noizko amaitua egongo den ere aurreikusia du jada, "2012ko negurako edo 2013ko udaberrirako amaituta egongo da". Amaituta bakarrik ez, aipatu data horretarako zerbitzua abian jartzea ere espero baita. Aspalditik eskatzen ari den azpiegitu-



AURKEZTUTAKO PROIEKTUAN, ITXURA HAU ZUEN GERONTOLOGIKO BERRIAK.

ra da gerontologikoa, eta "aitzindaria den zerbitzua eskainiko da", leku zoragarri eta paregabe, gobernu taldetik adierazi dutenez.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskalategia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneke Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Euskal presoak



Euskal Herrira!





ARITZ GORRITI

Sagardo Eguneko istorioak

Etorri bezala, konturatzeko joan zaigu. Horixe du, berezia, bizia bezain azkarra da, ziztu bizian doaz orduak egun horretan, eta berehala agurtzen da hurrengo urtera arte. Bakarra baita Sagardo Eguna. Ohiko giro ederrarekin batera, aurtengoan ereserkia izan da, Eusko Labelarekin batera antolatzaileek prestaturiko egitarauko osagai nabarmenena. Usurbildarrek sagardoa dutela aldaketa dioen kantak ireki zuen ofizialki, aurtengo edizioa.

Giro ederra ohi bezala. Balorazioa ezin hobea, zorionak antolatzaileei! Bada ordea, gutxitan aipatu eta egun honek duen nabarmenezko moduko beste alderdi bat. Bat baino gehiago harrituko ginateteke Sagardo Eguna norekin egon eta hitz egiteko aukera ematen duen. Sare sozialek inoiz baino indar gehiago duten honetan, eta Facebook orrialde bat bezala, Twitterrean ere "alta" emanda ez bazaude ia inor ez garela esan daitekeen honetan, pentsa sareok zenbateraino emango zuten joan den igandeko festan, taberna barruan, kanpoan, kale bazterrean, plazan, frontoian, txosna ondoan (aurten ere primeran prestatua euria eta eguzki izpietatik salbu egoteko)... esan eta entzundakoak jasoko balituzte. "Twit" askotarako emango luke, ziur.

Zenbat kontu txiki, zenbat bizipen, txantxa, broma, deklarazio, zurrumurru eta guzti. Edukia garrantzitsua, baina modu nabarmenagoan, ageriagoan geratu ohi dena, nor norekin hizketan ikusten den. Aitzakia gutxi falta da, urtean zehar ziur aski, tarterik hartu ez edo gutxien espero duzunarekin,

aspaldi ikusi gabe zinen horrekin, berak zu pelma ziñela uste izan eta berari gaizki begiratzen zenion harekin, nahi gabe trago bat eskatzera edo komunera joan eta aurre hartu nahi zizunarekin, topa egin nahi duzun horrekin, zerbait esan nahi zenion harekin, hunkitu zaituenarekin, barrez leherrarazi zintuenarekin... bi hitz edo gehiago egiteko.

Dena da ordura artekoa ahaztu, momentua bizi, eta egunak ematen duen bizitasun apur bat tarteko, herritarren arteko harremanak hobetu eta sakontzea, egun batez bada ere. Hortxe hasi eta akaso hortxe amaituko da hartu emana. Edo ez... Akaso hori guztia ere ez ote da hogeita hamar edizio hauetako Sagardo Egunaren magia? Zenbat istorio gorde ote dituzte sagardo festa guztiek. Kaxkoko horma eta kaleek hitz egingo balute...

Hemendik edalontziarekin istripu txiki bat izan nuen herri-tarrari neure barkamena eskatzea beste behin. Umore onez hartu baitzuen neure baldarkerian estropezu egin eta edalontzi barruko edaria bere arropara erori izana. Baina beno, konturatzeko joan da Sagardo Eguna, nahiz oroitzapenak hor dauden. Herria egunerokora itzuli da. Ez bakarrik egin ohi duten lanarengatik, oraingoan uneongatik, Sagardo Egunaren beste alde agian "ezkutuago" honengatik ere antolatzaileak zoriondu beharrean gaude. Aurtengoa amaitu da... Esan ohi den bezala, Sagardo Eguneko kontuak Sagardo Egunean geratzen dira (edo ez...). 2012koak gehiagorako emango du.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

Eutsi itxaropenari

Hamarkada bat aukerarik gabe. H Etengabeko eraso denbora luze horretan. Batzuetan (azkenengoan bezala) Usurbilen bai baina Hego Euskal Herriko askotan ez. Ezker Abertzaleko ehunka zerrenda ilegalizaturik eta milaka hautesle legez kanpo utziak. Beraien legea bete arren, Sortu oraindik ez da legala.

Baina maiatzaren 5ean Bilbon bizi izan nuen hura ahaztezina egiten zait. Hamarkada luze horretan bizi izandako erasoek elkartasun itxaropentsuz eran-

tzun zitzaioala esango nuke. Bilduko zerrenda guztiak *kuarentenan* edo lupaz begiratuak izango zirela esanez ibili diren goi arduradun horiek ezin izan dute bere nahia aurrera eraman eta beraiek jarritako epaileek Bilduk hauteskundeetan egoteko eskubide guztia duela esan dute. Gutxitan ikusi dut eraso bortitzari hainbesteko itxaropenarekin erantzuten eta benetan poztan naiz lortutakoaz.

Horregatik emango diot Bilduri nere bozka. Usurbilgo aurkezpenan

Bilduren zerrendan alkatetzarako doan emakume hautagaiak "guk ipar orratza dugulako" esaldiak eraso guztiei ongi baino hobeto erantzuten diolako Bildurentzat izango da nire bozka. Itxaropenaren leihoa ezik atea ere guztiz zabaltzeko eta Europako hizkuntzarik zaharrenetariokarekin batera euskal herri honetara benetako demokrazia eta bakea etor dadin 22an Bildu bozkatuko dut.

Orkatz*

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: maiatzak 27. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 23.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

1.450 bezerok jaso dute aparkamendu-diskoa

Aurreikuspenik onenak bete bakarrik ez, gainditu ere egin ditu Hurbilagok eta Usurbilgo Udalak erosketak egitea errazteko duela hilabete eta erditik martxan jarria duten errotazio bidezko aparkalekuen egitasmoak. 1.450 bezerori eman diete Kaxkoan zehar sakabatuak dauden 52 aparkalekuetan autoa uztea ahalbidetzen dien aparkamendu diskoa.

Egitasmoko eragileek diskoon eskaria bikoiztu behar izan dute, hasiera batean 1.000 prestatu baitzituzten, gerora ordea, Hurbilagotik adierazi dutenez, "500 gehiago eskatu beharrean aurkitu zen eta orain beste 500 gehiago ere egingo ditu bezeroentzat, guztira, 2.000 disko ingurura iritsiz". Diskoa eskatu dutenen artean, Usurbilgo auzoetako herritarrak daude, baita inguruko hainbat udalerrietako bezeroak ere; Aia, Orio, Lasarte-Oria, Hernani, Andoain edo Donostiakoak.

Ekimenak herritarren artean izan duen harrerarekin oso gustura dira Hurbilagokoak eta gaineratzen dutenez, Siadecok 2009an Usurbilgo Udalarentzat eginiko ikerketan jasotzen zenez, herrita-

rrek merkatal gune handietan erosketak egiteko zergatien artean, herrian zegoen aparkalekuen arazoa hirugarren faktore aipatuena izan zen. Horregatik, gogorazten dutenez, errotazio bidezko aparkaleku sistemarekin, "arazo horri konponbidea jarri zaio orain. Oso eroso da orain herriaren erdigunean erosketak egitea: aparkatzeko lekua bermatua dagoelako eta aparkaleku plaza horiek dendetatik oso hurbil kokatuak daudelako".

Doan eta saltokietatik gertu

Erosoa eta doakoa gaineratzen dutenez, hortxe dago hain zuzen, Usurbilen abiatutako ekimenaren gako garrantzitsuetakoa, errotazio bidezko aparkalekuak sortzea erabaki duten beste hainbat udalerrien aldean, Usurbilgo esperientzia berri-tzailea da, "ez dagoelako ordaindu beharrik eta doakoa den aparkamendu-disko bat jartzea nahikoa delako, autoa ordubetez aparkatu ahal izateko". Egitasmo berri hau zerbitzu paregabea dela deritzote, bereziki erosketa handiak herritik mugitu gabe egiteko.

Errotazio bidezko aparkalekuen egitasmoa Hurbilagok herri merkataritza biziberritzeko, bezeroei zerbitzu hobe edota gertuagokoa emateko egindako ahalegi-



HURBILAGOKO KIDEAK POZIK DIRA EKIMENAK IZAN DUEN HARRERAREKIN.

nen testuinguruan eman duen pauso bat gehiago da, eragileek adierazi dutenez, "esfortzu handia egin dute Hurbilagok eta Usurbilgo Udalak". Ez da ordea azkena izango, eta gogorazten dutenez, aparkalekuok bultzatu arren, "oinezkoei eman nahi diegu beti Kaxkoan lehentasuna eta aparkaleku erosoak periferian jarri dira". Erdigunean oinezkoentzako ibilbide eta guneak eskuratzearrekin batera, "herriaren erdiguneari bizia ematen lagunduko du, ezbairik gabe". Aparkalekuon erabilera, Kaxkoan kokatuak dauden establezimendu guztietako bezeroei zuzendua badago ere, aparkamendu diskoa eskuratzeko Hurbilagoko kide diren establezimenduetako batera jo behar da.

Ika-mika!

Jendearen ilusioak duen indarra kalkulatu ezina da, gu geuk ez gara horretaz konturatu ere egiten.

Egun hauetakoa izugarria izan da; Herri txiki bat estatu baten aurka, auzo lana estatu batek duen tresneriaren eta hedabide gehien aurka eta hala eta guztiz ere, ilusioa garaile. Pozik egon behar dugu, baina hankak lurrean mantenduz aparra burura igo gabe.

Lortutakoa bidearen urrats bat da soilik, garrantzitsua baina urrats bat. Bide horretan jarraitu behar dugu, lanean jarraitu behar dugu burua tente dugula eta ideiak garbi. Erakundeetako indarra berreskuratu behar da baina herriko talde eragileen indarra ahaztu gabe. Beste politika bat, beste eredu sozial bat nahi dugu gure Euskal Herriarentzat baina hori behetik gora egiten da.

Ilusioaren indarra

Erakundeak eskaintzen dituen baliabideak, gure baliabideak, herritarrekin batera beste norabide batean jarri behar ditugu aldaketa lortu nahi badugu.

Hurrengo legealdian erronka handiak ditugu, batez ere azpiegituren arloan. Errauste plantaren obrak korrika eta presaka hasi zituzten, maiatzeko hauteskundeetako emaitzen beldurrez. Dena lotuta uzten saiatu arren, beti egongo da atzera botatzeko bidea, baina horretarako indarra lortu behar da. Errauste planta gelditu nahi bada erabaki gogorrrak hartu beharko dira udaletxe, mankomunitate eta Foru Aldundian. Denekin ondo geratzeko moduko erabakiak ez dute ezertarako balio. Errauste planta egiten da edo erraustu gabeko hondakinen politika egiten da, nahastutako zaborren bilketaren alde

egiten da edo zero zabor politika eta gaikako bilketaren alde egiten da. Ez du balio errauste plantaren aurka zaudela esatea eta gehiengo nahastuta biltzen jarraitzea.

PNVk eta PSEk erabakia hartu zuten guztion gainetik errauste planta egiteko, H1koak apurren zain gelditzen ziren bitartean. Askotan mokoka azaldu arren, azpiegituren aferan bi alderdiak gauza bera dira. Jaurlaritzan PP-PSE paktua dagoen bitartean, Diputazioan PNV-PSE paktua da legealdi honetan indarrean egon dena eta mantendu nahi dutena. Orain gure esku dago gehiegikeria irentsi edo jendearen ilusioa bilduz proiektua gelditzea. Altxa burua eta sinetsi ilusioaren indarrak.

Matrikulazio epea zabalik

Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan

Ekainaren 28ra arte zabalik izango da Hasierako Lanbide Prestakuntza Programetan 2011-12 ikasturterako izena emateko epea. Usurbilgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanari esker, aurren ere bi programa eskainiko dira Atallun duten egoitzan; sukaldari-zerbitzari edo ile-apainketa laguntzaile izateko prestakuntzak hain zuzen.

Hezkuntza eskaintza hauetan matrikulatzeko honako baldintzak bete behar dira: 15-18 urte artean izatea, DBH-ko graduatua lortu ez izana, edota lanbide bat ikasi nahi izatea. Bi ikasturtez osaturiko programak dira: lehenengoa, 1.050 ikasketa orduz osatua dago. Bigarren ikasturtean, 1.050 ordu bideratu ohi dira



ILE-APAINKETA TALDEKO IKASLEAK, IAZKO IKASTURTEAN.

ikasketetara, beste 700 ordu sakontze lanetara, eta azkenik, 350 ordu guztira enpresetan burutu beharreko praktiketara.

Informazio gehiago Atallun, Zanziura kalean, 3. zenbakian. 943 360 465 telefono zenbakian edota lhi.usurbil@gmail.com helbidean.

Sukaldari-zerbitzari langilea edota ile-apainketa laguntzailea

Iraupena: 2 ikasturte

Hasiera data: 2011 / 09 / 01.

Amaiera data: 2013 / 06 / 30.

Orduak, guztira: 2.100 ordu.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera

8:00etatik 14:00etara.

Lekua: Atallu. Zanziura, 3. Usurbil

Norentzat dira

15 (baldintzatua) / 18 urteko gazteak.

DBH graduatua ez duten gazteak.

Lanbide bat ikasi eta lanean hasi nahi duten gazteak.

DBH graduatu lortu eta erdi - mailako ziklo bat ikasi nahi duten gazteak.

Programaren helburuak

Lanbide bat ikasi eta lan-munduan sartzeko aukerak zabaldu.

DBH graduatua lortu eta lanbide heziketako sarbide froga gaitututa erdi-mailako zikloetara sartzeko aukera zabaldu.

Programaketaren antolaketa

1. ikasturtea (1.050 ordu):

1.1. Berriazko modulua (tailerlean lanbidea ikasi. Praktikoak).

1.2. Prestakuntza modulu orokorrak (lanbidearekin erlazioa duen oinarriko heziketa). Borondatezko moduluak (DBH graduatua lortzeko laguntza).

1.3. Orientazio eta tutoretza modulua.

2. ikasturtea (1.050 ordu)

2.1. Berriazko modulua (tailerlean lanbidea ikasi. Praktikoak).

2.2. Prestakuntza modulu orokorra (lanbidearekin erlazioa duen oinarriko heziketa). Borondatezko moduluak (DBH graduatua lortzeko laguntza eta lanbide heziketako erdi-mailako zikloetara sartzeko laguntza).

2.3. Orientazio eta tutoretza modulua.

2.4. Lan-praktikak eskualdeko enpresetan.

Informazioa eta izen-ematea

Usurbilgo Udaletxean

Atallu. Zanziura, 3

943.36.04.65 / lhi.usurbil@gmail.com

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

LATAILLADE 
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
 Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Izen-emate guztiak onartu dituztenez, aurten ez da plaza zozketarik egingo Haur Eskolan

Datorren ikasturteari begira azken asteotan zabalik egon den matrikulazio epean izen eman duten haur guztiak plaza lortu dute Kalezarko Haur Eskolan. Honenbestez, aurreko urteetan ez bezala, oraingoan ez dute plazen zozketarik egingo.

Zergatia Haur Eskolakoeak argitzen dute, esanez, “2 urteko haur gutxiago matrikulatu direla joan den ikasturtean baino, eta 2 urteko 4 gela izan beharrean 3 gelek nahiko dugunez, beste gela libre ez uztea iruditzen zaigu logikoena eta orduan 0-1 adin tarterako utzi dugu; horrela, 0-1ean 3 gela egon beharrean, 4 egongo dira eta horrela 0-1eko haur guztiak sartzen dira. 1-2ko gelan matrikulatutako guztiak ere sartu dira”.



2 URTEKO HAUR GUTXIAGO MATRIKULATU DIRA AURTEN.

Ikasturte berria

Bertatik berri eman dutenez, 2011-12 ikasturtean haurrek bertan egingo dituzten ordutegien baieztapena jaso-

ko dute hezitzaileek. Hortik aurrera, “behin guk organigrama prest dugu-nean, haur bakoitzaren hezitzailea gurasoekin harremanetan jarriko da”.

Udarregi ikastolak 2013rako eraikin berria izango du

Joan den astean bildu zen Hezkuntza Mahaiak albiste garrantzitsu bat ekarri du; urtebete barru, 2012an hasiko dira Udarregi ikastolako eraikin berriko lanak, aipatu bilkuraren ostean gobernu taldetik baieztatu dutenez. Horretarako, 50 urtetarako lurraren lagapena lortu dute. Eraikin berria, Agerialdekoaren ondoan kokatuko da. Eremu horretan bilduko dira aurrerantzean, Haur Eskola, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zikloetako gela, ikasle eta irakasleak. Beheko eraikin gorria, DBH-ko ziklora bideratuko da.

Eraikin berria ireki artean, “bitarteko beharrei erantzuteko” 2008az geroztik adostua dagoen plana aplika-

tzen jarraituko dela ere iragarri dute gobernu taldetik. Baikorki baloratu dute eman den pausoa, modu horretan herriko hezkuntza eskaintza egonkortuko dela uste baitute.

2,5 milioi euroko aurrekontua suposatuko du egitasmo honek. Laguntza gehiago jasotzeko halere, Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia, 2013ko Kilometroak Usurbilen ospatzea eskatua dutela adierazi dute gobernu taldetik, duela hilabete batzuk Udarregi ikastolatik ere iragarri zuten moduan.

Haur Eskola, etorkizunean Zumarteren egoitza

Udarregi ikastolako eraikin berria zabaldu eta Haur Eskola bertara leku aldatzean, Kalezarko eraikina hutsik geratuko da. Udaletik iragarri dutenez,



2,5 MILIOI EUROKO AURREKONTUA DU PROIEKTUAK.

1.500 metro karratu inguruko eremuan Zumarte Musika Eskola kokatzea litzateke asmoa. Modu horretan, bi egitasmoei irtenbidea planteatzen diela berri eman dute Udaletik. Horretarako, egun Haur Eskolaren egoitza dena berritu eta egokituko dute, urte gutxi barru musika eskola bertan kokatzeko.

Ate irekien bigarren eguna, larunbatean Lanbide Eskolan

Larunbat honetarako, maiatzaren 21erako Lanbide Eskolak ate irekien bigarren eguna antolatu du. Joan den larunbateko saioan egin bezala, ikastetxeko instalakuntzak eta bertako hezkuntza eskaintza ezagutzeko aukera izango da asteburu honetan ere. Hitzordua, Zubietan kokatua dagoen ikastetxean, goizeko 11:00etan finkatu dute. Informazio gehiago lhusurbil.com web orrialdean edo 943 364 600 telefono zenbakian.

Ate irekien eguna biziki interesgarria izango da irailetik aurrera Zubietan ikasten aritu nahi duenarentzat. Haien guztientzat Lanbide Eskola web orri bidez berri ematen ari denez jada, aurre matrikula epea ekainaren 1etik 10era zabalik izango da. Ordutegi honetan: asteleheneetik oste-

gunera, 9:00-14:00 eta 16:00-18:00 artean. Ostiraletan aldiz goizez bakarrik, 9:00-14:00 artean. Aurkeztu beharreko dokumentazioa, ikasi nahi den mailaren arabera desberdina izango da. Erdi Mailako ikasleek NAN fotokopia, DBH-ko kalifikazio liburua izanez gero, originala eta kopia aurkeztu beharko dituzte. Bestela, matrikula egiterakoan.

Informazio gehiagorako

Goi Mailako ikasleek NA fotokopia, Batxilergoko ziurtagiria (lehen eta bigarren ikasturteetako batz besteko notarekin) edo kalifikazio liburua, originala eta bere kopia, gaindituta izanez gero, aurkeztu beharko dituzte.

Gai honi buruzko informazio gehiago www.lhusurbil.com web orrian edo 943 364 600 telefono zenbakira deituz (Juanjo Barberorengatik galdetu).



INFORMAZIO GEHIAGO JASO DAITEKE WWW.LHUSURBIL.COM HELBIDEAN.

NOAUA! Kultur

Elkarteko lan deialdia

FUNTZIOAK:

A. NOAUA! Kultur Elkarteko kultur dinamizatzailea. Betebehar nagusiak: NOAUA!ko kultur eta aisialdi jarduerak programatu eta kudeatu.

B. NOAUA! Kultur Elkarteko idazkari lanak. Betebehar nagusiak: elkarte zein aldizkarirako kontabilitatea, dirulaguntzen kudeaketa, herritarrei arreta eskaini, elkarte eta erakundeekin harremanak...

PROFILA:

-Administrazio eta Finantza teknikari ikasketak edo enpresa zientzietan diplomaturaren bat edo ikasketaren bat.

-Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

-EGA edo baliokidea den agiria.

-Teknologia berrietan trebatua izatea.

-Harremanetarako gaitasuna izatea.

-Gida baimena izatea baloratuko da.

ZER ESKAINTZEN DA:

-NOAUA! Kultur Elkarteko kultur dinamizatzaile eta idazkaria izatea.

-8 orduko lan-saioa gizarte segurantzarekin, 4 urtera bitarte luzagarri.

Curriculum-a maiatzaren 23a baino lehen ekarri edo bidali:

NOAUA! Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 behea / 20170 Usurbil

E-postaz: elkartea@noaua.com

NOAUA! banatzeko lan poltsa osatzeko deialdia

Astekaria banatzeko lan poltsa osatu nahi du NOAUA! kultur elkarteak. Izena eman nahi dutenek 943 360 321 telefono zenbakira deitu dezatela, edo emailaz idatzi elkartea@noaua.com helbidera.

ERRAZKIN
igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Maiatzaren 24a, Udajolasen izena emateko azken eguna

4 -12 urte arteko (HH3-LH 6) 135 haur eta gaztetxorentzat lekua egongo da aurten Udajolasen. Iaz baino 35 plaza gehiago daude. Plaza kopuruaren %5 ezinduentzat erreserbatu da. Izen emateko epea, ostegun honetatik, maiatzaren 19tik 24ra zabalik egongo da. Arratsalde, 16:00-18:00 artean NOAUA!ko egoitzan.

Usurbilgo Udalak eta NOAUA!-k antolatu duten ekimenerako izen emateko sistema aldatu da aurten. Hilaren 19tik 24ra Udajolasen parte hartu nahi duten guztiek izena eman ahal izango dute. Epea igarota, 135 haur eta gaztetxo baino gehiago apuntatuta egongo balira, plazen zozketa burutuko da maiatzaren 25ean, 17:00etan Sutegin.

HILABETEKO IRAUPENA

“Uztailaren 4an hasiko da eta uztailaren 29an amaituko da Udajolas”

Plaza lortu dutenek, maiatzaren 30era arteko epea izango dute ordainketa kontu korrante zenbaki honetan egin eta ordainagiria NOAUA!ra ekar-



AURTEN, 135 IZANGO DIRA ESKAINIKO DIREN PLAZAK.

tzeko: 3035 0140 34 1400025811.

75 euro ordaindu beharko dira plazako. Familia ugariak 60 euro, beti ere, familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia ekartzen badute.

Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko, ezta epez kanpo egindako ordainketarik ere. Informazio gehiago NOAUA!n (943 360 321). Aisialdi tarteak euskaraz, giro alai eta atseginean igarotzeko aukera ematen duten udaleku irekiok uztailaren 4tik 29ra burutuko dira. Astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30 artean.

Begiraleak behar dira Udajolasen lan egiteko

Udajolasen lan egiteko begiraleak behar dira eta interesa dutenekin lan poltsa osatu nahi da.

Interesdunek izen emateko maiatzaren 24ra arteko epea dute.

Bete beharreko baldintzak honakoak dira: begirale titulua izatea edo titulazioa ikasten aritzea. EGA titulua eta usurbildarra izatea hobetsiko dira. Curriculum eta begirale zein EGA tituluen kopiak elkarte@noaua.com helbidera bidali behar dira.

Astebete baino ez, Zubietako Udako Txokoetan izena emateko

Uztaila eta abuztu honetan ere Zubietan Udako Txokoak antolatu dituzte 3-11 urte arteko haur eta gaztetxorentzat. Eskola Txikia izango da haur eta begiraleen biltokia, eta astelehenetik ostiralera goiza elkarrekin igaroko dute, 9:30-13:30 artean. Izen emateko orriak Eskola Txikian bertan eta Barazar tabernan eskura daitezke. Orriak bete

ostean, udaletxeko postontzian utzi behar dira, Alamandegian.

Ordaindu beharreko kuota, izena ematen duen haur kopuruaren arabera zehaztuko da.

Izen emateko epea astebete barru itxiko dute antolatzaileek, maiatzaren 27an. Informazio gehiago: 636 719 301 (Josune) edo 618 700 479 (Izaskun).



3-11 URTE BITARTEKO HAURREI ZUZENDUTA DAUDE TXOKOAK.

Astebete lehenago, sagardua alkate

Igandean, 11:30ak emateko zorian, euria hasi zuen baina horrek ez zuen giroa goibeldu. Ordurako, dena prest zegoen. XXX. Sagardo Eguna bi gauzengatik oroitua izango da: Eusko Label zigilua urtea izan delako. Eta Usurbilgo ereserkia berreskuratu duen urtea izan delako.

Postu guztietan, apaingarri moduan jarritako sagardo botila handietan, denetan ikus zitekeen Eusko Labelaren ikurra.

XXX. SAGARDO EGUNA

“Eusko Labela eta Usurbilgo ereserkia izan dira aurtengo bereizgarri nagusiak”

Aurtengo Sagardo Egunaren ezaugarrietako bat izan da. Bertako sagarrarekin egindako sagardoa delako. Label sagardoa, gainera, Eusko Labelen kalitate irizpideetan oinarritzen delako.



ERESERKIA KANTATU ONDOREN EGIN ZEN IREKIERA EKITALDIA.

Baina ez zen bereizgarri bakarria izan. Aurtengo edizioan, Joxe Mari Soroak eta Mikel *Ezkerraren* senideek hartu zuten parte irekiera ekitaldian. Usurbilgo ereserkia kantatu zuen Soroak, frontoian zirenen laguntzarekin. "Usurbiltarrak daukate sagardua alkate" dioen abestia, hain zuzen.

Inaxio Usarraldekin egin zituen bozeramale lanak beste behin ere, eta ire-

kiera ekitaldian bertan, Ingemarren greba mugagabearen diren langileak izan zituen gogoan.

Botila zabaldu, lehen tragoa hartu eta horrela abiatu zen XXX. Sagardo Eguna. Gauza gehiago ere gertatu ziren egunean zehar. Batzuk, ordu txikiak arte luzatu zuten eguna... Ezin denak hemen kontatu eta, zenbaitzuk, txoko honetan kontatu ezinezkoak dira.

Argazki gehiago ikusi nahi?

Gure web orrialdean (www.noaua.com) aurtengo Sagardo Eguneko hainbat argazki ipini ditugu, Argazkitegia izeneko atalean. Zureak ere txoko horretan ikusi nahi

badituzu, bidali argazkiak JPG formatuan erredakzioa@noaua.com helbidera, eta orain Argazkitegi horretan ikusgai dauden argazkiekin batera ipiniko ditugu.



FRONTOI INGURUA BESTE BATZUETAN BAINO LASAIAGO EGON DA AURTENGOAN.

Sagardo Eguneko bideoak



NOAUA!ko web orrialdean, Usurbilgo ereserkia kantatu zeneko bideoa ikus daiteke.



NOAUA!ko web orrialdean, goizeko jai-giroa biltzen duen bideoa aurkituko duzue.

Artzabalen ospatu zen San Ixidro eguna

Sagardo Egunarekin bat egin zuen San Ixidro ospakizunak. Hori dela eta, Dema plazan beharrean Artzabalen egin zen baserriarren festa, pasa den igandean. Jagoba Otaegi harri-jasotzaile gazteak eta Txapartegi eta Etxebeste aizkolariek ikuskizun polita eman zuten.

Sagardo Eguna ez zuen baserriarren eguneko festa itzali. Estrainekoz, ekitaldiak Artzabalen egin ziren eta herri kirolek Dema plazan bezain ondo luzitu zuten. Gure web orrialdean, www.noaua.com helbidean, San Ixidroko ekitaldien inguruko bideoa ikus daiteke. Bertso saioaren zein herri kirolen pasarte esanguratsuenekin.



JAGOBA OTAEGI HARRI JASOTZAILEAK 19 URTE DITU.

Santueneko

Argazki Lehiaketa

Argazki lehiaketaren lema Ahauxe da: "Herriko Txoko Politenak". Lehiaketa honetan elkarteko edozein bazkidek har dezake parte 14 urte bete gabe baditu. Izena ematea maiatzaren 22a bitarte egin daiteke Santueneko ludotekako ordutegian.

Argazki bakarra aurkeztuko da eta tamaina normalekoa izango da (bertikala edo horizontala).

Lehiaketan parte hartuko duten guztiei sari txiki bat emango zaie.

Argazki hauek aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a izango da, arratsaldeko 19:00etan. Ludotekan aurkeztuko dira argazkiak, sobre itxian, azalean izen abizenak eta adina jarriaz. Irabazleen izenak ekainean emango dira. Informazio gehiago Santuenea Kultur Elkartean.

Txikienak nagusi Zubietako Kultur Astean



Zubietako Eskola Txikian ilusio handiz prestatu zuten Kultur Astea. Ekitaldi ugari gozatzeko aukera izan zuten Zubietako haur eta gazte-

ek. Ostiralean, Eskola Txikiko ikasleek dantza saio polita eskaini zuten frontoi ondoko lokalean. Bertaratu zirenek arretaz jarraitu zuten dantzaldia.

Asteburuan abiatuko da Usurbil Cup, berrikuntza gisa nesken arteko txapelketarekin

Maiatzaren 6ra arte Usurbil FT-koek zabalik izan duten tartean, 30 gazte taldek izena eman ondoren, haien guztien parte hartzearekin abiatuko da asteburuan Usurbil Cup kirol ekimen arrakastatsua. Berrikuntzarik ere bada aurtengo edizioan. Antolatzaileek iragarri dutenez, nesken taldeek euren txapelketa jokatuko dute. Finalak ekainaren 25ean jokatuko dira.

30 taldek eman dute izena asteburu honetan martxan jarriko den Usurbil Cup ekimenean. Mutil edo mixtoen kategorian, minibenjamin, benjamin, alebin eta infantil mailako taldeak osatu dira. Nesken kategorian ere aipatu maila hauetarako ere taldeak sortu dira. Hortik dator hain zuzen, Usurbil FT-k aurtengo ediziorako txertatu duen berrikuntza. Izena eman duten nesken taldeek aparteko ligaxka jokatuko dute Usurbil Cup ekimenean. "Minibenjaminak eta benjaminak elkarren artean jokatuko dute eta alebinek eta infantilek ere berdina egingo dute, elkarrekin bildu eta beraien artean ligaxka", adierazi dute Usurbil FT-tik. Aurtengo edizioan kadete mailako talderik ez da izango.

Aipatu moduan, asteburu honetan bertan jokatuko dira txapelketako



FINALAK EKAINAREN 25EAN JOKATUKO DIRA.

lehen partidak eta azkenak, ekainaren 25ean. Datorren hileko azken larunbatean jokatuko dira Usurbil Cup ekimeneko finalak.

ADIN EZBERDINEKOAK

"30 taldek eman dute izena aurtengo Usurbil Cup Txapelketan"

Hiru gune ezberdinetan

Aurreko edizioetako jokaleku berak izango ditu Usurbil Cup ekimenak aurtun ere; Udarregi ikastola, Oiardo

kiroldegia eta frontoia, "xarma gehien duen gunea" Usurbil FTkoen esanetan. Halere, txapelketa udalerrian zehar hedatu asmoz, eskenatoki berriak txertatzea ere ez dute baztertzen; Santueneko pista berria, edota Artzabalgo frontoia. Edozein kasutan, antolakuntzatik berri eman dutenez, "beharren arabera mugituko gara".

Bilera, maiatzaren 19an

Usurbil Cup txapelketari buruz hitz egiteko bestalde, taldeetako entrenatzaile edota arduradunekin bilera deitu du Usurbil FT-k ostegunerako, maiatzaren 19rako, 19:30ean Haranen.

Harrera ona Aste Santuko txokoek

Usurbil Cup abiatu aurretik bestalde, berrikuntza gisa Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko txokoak antolatu zituzten Usurbil FTkoek Aste Santuko oporraldian. Berri eman dutenez, "futboletik zuzendu bagenuen ere, kirolaren erabilera sustatzea zen gure helburua eta kirola aprobetxatuz momentu onak pasatzea, gozatzea azken finean. 47

neska mutilek hartu zuten parte". Guztiak LHko lehen eta laugarren maila arteko ikasleak, bosgarren eta seigarren ikasturteetan ez baitzen talderik osatu. Hainbat ekintza burutu zituzten; hala nola, "jolas tradizionalak, Zubietako frontoira irteera herri kirolak egitera, futbol jolasak, multi-kirola eskubaloi-saskibaloi-pelota eta amaitzeko, larunbat goizean, altxorra-

ren bila, papiroflexia eta amaierako festa".

"Kritika onak izan ditugu"

Ekimenak izandako harrerarekin pozik dira Usurbil FT-koak: "Oso balorazio positiboa egin genuen, lehen aldia izanik arrakastatsua izan zen eta orokorrean kritika onak izan ditugu".

Larunbat honetan, kalea eskenatoki

Larunbat honetan, antzezle ugari elkartuko dira herrian. IV. Kale Antzerki Eguna ospatuko baita. Goizean goizetik, haur, gazte zein helduentzako nahi adina ekitaldi izango dira.

Kaxkoan, frontoian, Mikel Laboa plazan... Edonon topatuko ditugu antzezleak. Pailazoak, klown antzezleak eta zirkoko protagonistak iragarriak daude. Has dadila festa!

11:31 HIPO ETA TOMAX taldea "Beldurraren etxean" antzezlanarekin frontoian.

12:31 KUKUKA LASARTE ORIAKO ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLA "Klownkidetza" antzezlanarekin Kaxkoan.

13:00 OIHULARI KLOWN taldea "Otiacicoach" antzezlanarekin Mikel Laboa plazan.



TRAPU ZAHARRA TALDEKO KIDEEK, "KANPING RENOVE" SAIDA ESKAINIKO DUTE 19:30AK ALDERA.

17:01 PATATA TROPIKALA taldea "Mendiko altxorra" antzezlanarekin Zumeta muralean.

18:16 ZIRKALE taldea "Zirko gala berezia" antzezlanarekin frontoian.

19:31 TRAPU ZAHARRA taldea "Kamping Renove" antzezlanarekin Kaxkoan.

22:31 DEABRU BELTZAK "The Wolves" ikuskizun berriarekin Mikel Laboa plazan.

Helduen danborradan izena emateko garaia da

Santixabeletan ospatuko den helduen danborradan parte hartu nahi dutenek, ostiral honetan, maiatzaren 20an dute izena emateko eguna, 20:30ean Agerialden. Hitzordu berean burutuko da gainera, lehen entsegu saioa eta baita datozenak ere. Ordu bete lehenago burutuko da joan den maiatzaren 7an haurren danborradan izena eman zutenen lehen entsegu saioa. 19:30etan Agerialden eta aurrerantzean ostiralero ordu eta leku berean.



OSTIRALEAN 20:30EAN, AGERIALDERA HURBILDU BEHARKO DUTE.


ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
TIF 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Oiardo kiroldegi eraberritua, ostiraletik aurrera erabilgarri

Iritsi da azken hileotan Oiardo kiroldegian burutu diren lanak ezagutzeko unea. Ostiral hone-tatik, maiatzaren 20tik aurrera kirol instalakuntzen handitzeari esker sortu den gune berria erabiltzen hasteko aukera izango dute herritarrek.

Usurbilgo Udaletik aipatu dutenez, “aspalditik egoera kaskarrean zeuden zerbitzuek (hala nola, fitness gela eta judo zerbitzuak) hobekuntza nabarmena izango dute; beste aldetik herriko ikastolak duen kirol gune berrien beharrei erantzun bat emango zaie”. Hauek dira burutu diren hobekuntza lan nagusien nondik norakoak:

Behe aldean

- Taberna berri bat egiteko tokia.
- Bulegoa eta bilera gela.
- Igerilekuko ikastaroetako aldagela bat bere zerbitzu eta dutxekin.
- Botikin eta biltegi berria igerilekuan.

Lehen solairuan

- Pistan komunak (ezinduentzat ere).
- Aurreko aldea beiraz apaindutako 204 metro karratuko gimnasio berria makina berriekin: korrika egiteko bi zinta, hiru makina eliptiko, bi arraun ergometro, bizkarra, trizepsak, bikiak, aduktore-abduktoreak eta gerrialdea lantzeko estazio bana, lau bizikleta estatiko eta sei spinning bizikleta eta gimnasiaroko aldagelak.

Bigarren solairuan

- 266 metro karratuko gimnasio-tatami berri bat bere aldagelekin.
- Gunean aire egokitua.



ITXURAN EZ EZIK, ZERBITZUETAN ERE HOBERA EGIN DU OIARDO KIROLDEGIAK.

Santuenea ere eraberriturik, larunbat honetan kirol saioak

Santueneak frontoi berri bezain ikusgarria du jada, baita futboleko edo saskibaloian jokatzeko pista eraberritua, bi jolas parkeez inguratua. Eraberritze hauetaz gozaten hasteko aukera dute jada Santueneko bizilagunek. Lanak amaitzearen ondoren, Ibai-Ondo eta auzotar elkarteok larunbat honetarako, maiatzaren 21erako goizean zehar zenbait kirol ekimen antolatu dituzte auzoan.



GOIZEAN ZEHAR HAINBAT EKITALDI IZANGO DIRA.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

Emakumeen Pala Txapelketa, abiatzear

Santixabel jaien hasieran azken surteotan erakustaldi modura ospatu den emakumezkoen pala partida, aurtengoan txapelketan bihurtu da. Zortzi emakume bikote elkartu eta txapelketa antolatzea erabaki dute.

Elkarren arteko pala partidak jokatuko dituzte datozen asteotan frontoian, astearte arratsaldetan 19:00etatik aurrera eta ostegun arratsaldetan, 19:30etan hasita. Txapelketa maiatza bukaeran hasita aurreikusten da eta ekaina bukaeran jokatuko dituzte azken neurketak. Gizonezkoen pala txapelketa ere ospatuko da aurten. Emakumezko zein gizonezkoen neurketen finalak egun berean jokatuko dira, datorren hilabete amaieran.



IAZ ERAKUSTALDI IZAN ZENA, AURTEN TXAPELKETA MODUAN JOKATUKO DA.

Itoitz Rodriguez Errondosoro, Euskadiko atletismo txapelketan

500 eta 1000 metrotako distantzia-dun atletismo probatan ez du parekorik Itoitz Rodriguez Errondosorok. 14 urterekin Udarregi eskolarteko gazteak hainbat txapelketa irabazi ditu; berriki, Hernanin jokatu den Gipuzkoako Txapelketa. Mila metrotako ibilbidea 2:59 denbora tartean osatu zuen. Beste hainbeste egin zuen Zumarragan ere, 500 metrotako atletismo proban lehen postuan sailkatu zen. Hori gutxi balitz, jauzi hirukoitzeko Gipuzkoako Txapelketan bigarren postua ere eskuratua du gazte usurbildarrak. Eta asteburuan Tolosan jokatu zuen federatu kategoriako proba,

Espainiako Txapelketan jokatu ahal izateko puntuagarria zen. 600 metroko proba irabazi zuen arren, bi segundurengatik ez du Espainiako Txapelketan parte hartzerik izango. Hurrengo hitzordua Gasteizen du, maiatzaren 28an Euskadiko Txapelketako 1000 metrotako atletismo proban parte hartuko du. Pozik dago Itoitz. Futbolarekin partekatu izan du atletismoari eskaini ohi dion denbora, baina antza, ikasturte amaieran bi kirol jardueretako bat hautatu beharrean izango da. Itoitz Rodriguez Lasarte-Orian entrenatu eta prestatzen da, bost urte daramatza atletismoan.

Herri Artekoan, 2-1 aurreratu da Usurbil

Kadete mailan Iñigo Ibargoien-Josu Furundarena bikoteak aise irabazi zuen Alegiako bikotearen aurkako norgehiagoka, 22-3 emaitzarekin. Jubeniletan, ordea, Alegiak ez zuen aurreririk izan eta 22-1 nagusitu ziren. Bana markagailuan eta tanteo antzekoan, Nagusien partida erabakiorra zen. Enrike Huizik eta Xabier Santxok ondo jokatu zuten eta 22-7 irabazi zuten. Itzulerako partidak igandean jokatuko dira, 17:00etan Alegiako frontoian.

Kadetetan

ALEGIA-USURBIL

(Iñigo Ibargoien - Josu Furundarena)

Jubeniletan

ALEGIA-USURBIL

(Imanol Rebollo - Imanol Zinkunegi)

Nagusitan

ALEGIA-USURBIL

(Enrike Huizi - Xabier Santxo)

Maiatzak 22 igandea, 17:00etan Alegian.

Usurbilgo Pilota Txapelketa

**Maiatzak 21 larunbata,
Aginagan goizeko 10:30ean**

Jubenilak

Barandiaran-Santxez / Gallurralde-Erostarbe
(Astigarraga) (Urretxu)

Nagusiak

Urmeneta-Aranalde / Ubera-Irureta
(Usurbil) (Elgeta)

Azpiazu anaiak / Muguruza-Mitxelena
(Zaramaga) (Bergara)

**Maiatzak 22 igandea,
Usurbilen goizeko 10:30ean**

Jubenilak

Loitegi-Lizaso / Arizmendi-Apeztegia
(Urnietia) (Baztan)

Maia-Almandoz / Manzidor-Unanue
(Doneztebe) (Antigua)

Nagusiak

Iriondo-Aizpuru / Urbieta-Galarraga
(Azpeitia) (Bidegoien)

Maiatzaren 13ko emaitzak

Jubenilak

Urkizu-Etxegoien 18 Cestau-Etxebertx 22
(Hernani) (Huarte)

Nagusiak

Mikel-Perez 22 Juanenea-Epelde 11
(Zaramaga) (Iantzi)

Alegria-Iriarte 22 Otamendi-Lizeaga 10
(Leitza) (Hernani)

Lizaso-Lopetegi 20 Zugadi-Ansotegi 22
(Villabona) (Markina)

Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06.55	>>	07.15	07.25	07.35	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.10	>>	08.35	08.45		07.45	07.55	08.05	>>	08.30
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.10	09.30	09.35	09.45		08.45	08.55	09.05	>>	09.30
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	09.20	09.30	09.40	09.45	10.10
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25		10.30	10.40	10.45	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.20	13.30	13.40	13.45	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.20	14.30	14.40	14.45	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.20	15.30	15.40	15.45	16.10
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25		16.30	16.40	16.45	17.10
18.10	18.30	18.35	18.45		16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	17.45	17.55	18.05	>>	18.30
19.10	19.30	19.35	19.45		18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.40	>>	20.05	20.15	20.25		19.30	19.40	19.45	20.10
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	20.45	20.55	21.05	21.10	21.30
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05	21.15	21.25	21.35	21.40	22.00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00	>>	01.25	01.35	01.45
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00	>>	05.25	05.35	05.45
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15	00.25	00.35	>>	01.00
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15	02.25	02.35	>>	03.00
03.15	03.25	03.35	>>	04.00
04.15	04.25	04.35	>>	05.00
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Tren Orduetgia

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06:00	06:15	06:24	06:39	05:47	06:01	06:11	06:20
06:30	06:45	06:54	07:09	06:17	06:31	06:41	06:50
07:00	07:15	07:24	07:39	06:47	07:01	07:11	07:20
07:30	07:45	07:54	08:09	07:17	07:31	07:41	07:50
08:00	08:15	08:24	08:39	07:47	08:01	08:11	08:20
08:30	08:45	08:54	09:09	08:17	08:31	08:41	08:50
09:00	09:15	09:24	09:39	08:47	09:01	09:11	09:20
10:00	10:15	10:24	10:39	09:47	10:01	10:11	10:20
11:00	11:15	11:24	11:39	10:47	11:01	11:11	11:20
12:00	12:15	12:24	12:39	11:47	12:01	12:11	12:20
12:30	12:45	12:54	13:09	12:17	12:31	12:41	12:50
13:00	13:15	13:24	13:39	12:47	13:01	13:11	13:20
13:30	13:45	13:54	14:09	13:17	13:31	13:41	13:50
14:00	14:15	14:24	14:39	13:47	14:01	14:11	14:20
14:30	14:45	14:54	15:09	14:17	14:31	14:41	14:50
15:00	15:15	15:24	15:39	14:47	15:01	15:11	15:20
15:30	15:45	15:54	16:09	15:17	15:31	15:41	15:50
16:00	16:15	16:24	16:39	15:47	16:01	16:11	16:20
16:30	16:45	16:54	17:09	16:17	16:31	16:41	16:50
17:00	17:15	17:24	17:39	16:47	17:01	17:11	17:20
17:30	17:45	17:54	18:09	17:17	17:31	17:41	17:50
18:00	18:15	18:24	18:39	17:47	18:01	18:11	18:20
18:30	18:45	18:54	19:09	18:17	18:31	18:41	18:50
19:00	19:15	19:24	19:39	18:47	19:01	19:11	19:20
19:30	19:45	19:54	20:09	19:17	19:31	19:41	19:50
20:00	20:15	20:24	20:39	19:47	20:01	20:11	20:20
21:00	21:15	21:24	21:39	20:47	21:01	21:11	21:20
22:00	22:15	22:24	22:39	21:47	22:01	22:11	22:20
22:40	22:47	22:56	23:11				

■ Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN
■ Astelehenerik igandera eta JAIEGUNETAN
■ Astelehenerik eta Udako (11/06/19 - 11/09/11)
 larunbat, igande eta jaiegunetan.

www.euskotren.es © 902 54 32 10

Ospitalera autobusak

astelehenerik ostiralera (lanegunak)

Usurbil → Ospitaleak			
USURBIL	ZUBIETA	LASARTE	OSPITALEAK
07.15	07.25	07.30	07.45
08.15	08.25	08.30	08.45
09.15	09.25	09.30	09.45
10.15	10.25	10.30	10.45
11.30	11.40	11.45	12.00
12.30	12.40	12.45	13.00
13.30	13.40	13.45	14.00
14.30	14.40	14.45	15.00
15.30	15.40	15.45	16.00
16.30	16.40	16.45	17.00
17.45	17.55	18.00	18.15
18.45	18.55	19.00	19.15
19.45	19.55	20.00	20.15
20.45	20.55	21.00	21.15

Ospitaleak → Usurbil			
OSPITALEAK	LASARTE	ZUBIETA	USURBIL
-	07.00	07.05	07.15
07.45	08.00	08.05	08.15
08.45	09.00	09.05	09.15
09.45	10.00	10.05	10.15
11.00	11.15	11.20	11.30
12.00	12.15	12.20	12.30
13.00	13.15	13.20	13.30
14.00	14.15	14.20	14.30
15.00	15.15	15.20	15.30
16.00	16.15	16.20	16.30
17.15	17.30	17.35	17.45
18.15	18.30	18.35	18.45
19.15	19.30	19.35	19.45
20.15	20.30	20.35	20.45

Datorren astean, Andatzarekin Bardeetara

Nafarroako Bardeak. Hori Nizango da Andatza taldekoen hurrengo irteeraren helmuga. Maiatzaren 29an igandea, goizeko 7:30ean abiatuko dira kiroldegiko aparkalekutik.

Nafarroako Bardeak ezagutzeko aukera paregabea izango da datorren astean. Andatza Mendizale Elkartek bertako natur parkera joateko bidaia antolatu du eta izen ematea irekia da.

7:30ean abiatuko dira autobusez Oiardo udal kiroldegiko aparkalekutik. 10:00etan, Bardeetako Piskerra mendira joko dute eta 14:30ean bazkaria, Bardeetako jatetxe batean.

16:30etik aurrera, Valtierako bizileku izandako kobak bisitatuko dituzte eta 19:00ak aldera itzuliko dira.

Izen-ematea, 30 euro. Aurretik 10 euro jarri beharko dira. Andatzako bulegoan, maiatzaren 26an osteguna arratsaldeko 19:00etatik-20:00etara.

Informazio gehiago: andatza.com



IZENA EMATEA MAIATZAREN 26AN ANDATZA ELKARTEAN, 19:00ETATIK 20:00ETARA.

Ana Tello, azken sariduna

Amau da denboraldi honi dagokionez, eskubaloi taldekoek burutu ohi duten erri-fa zozketa. Azken saria Ana Tellorentzat izan da:



asteburuko menua birentzat Atxega jatetxean. Eskubaloi elkartekoek erri-fa zozketan parte hartu duten jatetxe eta saltokiak eta erri-fak erosi dituzten herritarrek eskertu nahi dituzte.

Agenda!

Maiatzak 21 larunbata

- **Atxegaldeko Jai Batzordea** bilera 11:30ean.

- **IV. Kale Antzerki Eguna.** 11:30etik aurrera.

Maiatzak 28 larunbata

- **Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa saioak** 11:30ean eta 17:30ean.

- **Kantu Jira kalez kale** 19:30ean frontoitik irteera.

Goardiako farmaziak

Maiatzak 19, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 20, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 21, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 22, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 23, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 24, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 25, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 26, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 27, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 28 larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 29, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

* *Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Larunbat honetan, Atxegaldeko Jai Batzordearen bilera deitu dute

Hamarkada batetik gorako etenaldiaren ostean, auzoko jaiak 2007ko udan itzuli ziren Atxegaldera. Ordutik lau urte igaro dira, eta aurten bosgarren ediziora ailegatu dira abuztuko azken asteburuan ospatu ohi diren festak eta urteurrena antolatzaileentzat ez da oharkabean pasako.

Datozen jaiok antolatzeko lanei ekin diete jadanik. Hurrengo bilera hitzordua, larunbat honetarako, maiatzaren 21erako finkatu dute,



JAI BATZORDEKO LOKALEAN IZANGO DA BILERA, 11:30EAN.

goizeko 11:30ean Atxegaldeko Jai Batzordeko lokalean. Bilera irekia izango denez, auzotarrei antolaketa lanetan parte hartzera deitzen diete.

Jon Sarasua Zubietan

Zubietan Lantzenek Jon Sarasuaren hitzaldia antolatu du. Maiatzaren 26an izango da, Kaxkapen, arratsaldeko 19:00etan.



“Herrigintzari buruzko gogoeta batzuk” izenburua gaitzat hartuta jardungo du Zubietako Kaxkape lokalean. Antolatzaileek aditzera eman digutenez, lurrarekin eta etorkizunarekin zerikusia duten mugimenduak aztertzen eman ditu azken urteak: “jasotako esperientzia ongi etorriko zaigu ganean jarri nahi dizkiguten proiektuen aurrean herritarrok eta, batez ere gazte jendeak hartu nahiko litzuzkeen bideak aukatatzeko”.

Zumartekoak Gasteizen

Larunbat honetan, Gasteizen ari-tuko dira Zumarte Musika Eskolako ikasleak. “Musikaldi 2011” jaian parte hartuko dute (Euskal Herriko Musika Eskolen jaian), beste 40 musika eskolekin batera. Guztira, 2.300 ikasle elkartuko dira aurtengo Musikaldin.

Ondasun Higiezin Zerga

Usurbilgo Udalak igorri berri dituzten ondasun higiezin gainera zergari dagozkion ordainagiriak, borondatezko epean ordainduak izan daitezten. Ordainketarako epea ekainaren 30era bitartekoa izango da, helbideratuta dauden agiriak ekainaren 30ean zergadunak adierazitako kontuan kargatuko direlarik.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

JATETXEA - TABERNA
BELARTZA



943 37 60 82

Eguneroko menuak eta
larunbatetan menu bereziak

- Flater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Ateeden egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN

Polygono Belartza • Gurutzegi kalca, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

ETXEBIZITZA

- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituen etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 78 metro karratuko pisu bat alokatzen dugu Atxegalden. 3 logela, egongela, bi komun, sukaldea, balkoia, berogailua eta igogailua. 637309209.
- 85 metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkooan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkooan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona. Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkooan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitua. Tlf: 686969112
- Kaxkooan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logetako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldiarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkooan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkooan. 607 924 407.

- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaera

- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afariarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umek zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinake? Hala bada, pasa zaitez Udarrégi Ikastolako idazkaritza izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Aleman eta Ingeles natiboko, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendarri lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrek emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendarri moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordu-tegi malgua (egun ez zein gauze) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona

- helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanearako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbizari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko nitzuke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/buridnari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriarako. 666539284
- Masajek ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 telefono zenbakira deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabriar kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko zurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburategian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarre gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrek salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60, Edurne.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko. DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbiztu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak zuri... Zorionak Oier!
6 urte bete ditu gure paisoak.
Zorionak Aginagako Eskolakoan partez eta ondo pasa zure urtebetetze festan.

**Zorionak Olatz!**

Hileko azken ostiralero egiten dugun moduan bildu gara, bildu (modan dagoen kantu bat da). Oraingoan, gainera, arrazoi erantsia genuen: zu zoriontzea, alegia. Urte askoan eta ea lehenbailehen denok bilduta ospatzen dugun!

Zorionak!

Maiatzaren 20an,
Oierrek 6 urte,
26an Landerrek
eta Ametsek urte
bana, jarraitu orain bezain alai eta jator.
Zorionak eta muxutuak etxekoan partez!



Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan.
E-posta: erredakzioa@noaua.com
*Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu

HILDAKOAK

Juan Mari Hevia Gonzalez
Maiatzaren 14an hil zen,
57 urterekin Zubietan.

aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera

udajolas

udaleku irekiak

4-12 urte (HH3-LH6) bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago.

Uztailaren 4tik 29ra

Ordutegia: 09:30-13:30

Gehienezko plaza kopurua 135 umekoa izango da. Plaza kopuruaren %5a ezinduentzako erreserbatua egongo da. 135 ume baino gehiago apuntatuko balira, **zozketa egingo litzateke maiatzaren 25ean, arratsaldeko 17:00etan Sutegin.**

Izen emateko epea: **maiatzaren 19tik 24ra** (biak barne), 16:00etatik 18:00etara, Noauako bulegoan. Izen ematerakoan, izen emate orria ekarri behar da.

Maiatzaren 26an, Udajolasen onartu eta baztertuen zerrenda jarriko da Noauako bulegoan. Behin plaza ziurtatua dagoenean, eta **maiatzaren 30a baino lehenago egingo da diru-sarrera**. Data hori pasata egiten diren ordainketak ez dira onartuko eta plaza galduko da. **Ordainagiriaren kopia Noauara eraman behar da.**

Ordainketa EUSKADIKO KUTXAko kontu honetan egin eta bertan haurren izen-abizenak adierazi:
3035 0140 34 1400025811

Kuota: 75€

Famili ugaria: 60€ (txartelaren kopia ekarri behar da)

Noaua!!

www.noaua.com

Usurbil
Osakidea atzetik atzetik



Usurbilgo Udala

Hurbilagorekin, zeu irabazle!

%5



Hurbilago txartelarekin
%5eko DESKONTUA
maiatzaren 14tik 31ra



hurbilag



Usurbilgo Merkataria

Usurbilgo Udala

Usurbil osasuna atez ate

bñahi


BERRAUTEREN ESTILOZ



Hauteskundeak

gehigarri berezia

11



**Herriaren oraina eta geroa,
alderdi politikoan begietan**

BOZKATU



Jakin eta egun

Andoni Atxega



ONENA EMIA TEKO GARAI

Usurbil

#Usurbil



Usurbil

Iritsi da botoa emateko garaia

Hauteskunde kanpainaren azken txanpan gaude. Herritarrek erabakiko dute datozen lau urteetan zein izango den herriko alkatea. Baina ez da, aukeran, bozkatu behar den gauza bakarra. Gipuzkoako Batzar Nagusien osaketa ere jokoan da. Eta hori gutxi balitz, zubietarrek Herri Batzarrerako ere bozkatu behar dute.

Eskuartearen duzun gehigarri berezi honetan, alderdien programa elektoralak jaso ditugu.

Gipuzkoako Batzar Nagusietara aurkeztu diren zerrenda guztiak ere orriotan aurkituko dituzue.



EMAITZAK NOAUA.COM WEB ORRIAN IPINIKO DITUGU IGANDEAN BERTAN.

gauzak argi eta garbi

5. edukiontzia

H1!

Eman botoa!!
hamaikabat

www.h1usurbil.net Ez geratu etxean

“Herritarrekin batera eraiki nahi dugu herria”

Biharko Usurbil gaurdantik eraikitzen ari garela kontuan izanda, behetik gora eraikitako herri eredua bultzatuko dugu, demokrazia parte hartzailean sustatua eta euskal nortasuna indartuko duena. Herria herritarrekin batera eraiki nahi dugu, kudeaketa irekia eta gardena ezarri eta aurrekontu-partehartzaileak, ezkerrekoak eta abertzaleak.

Programaren ildo nagusien ezaugarriak zehaztu baino lehen, Usurbil 2020ren egitasmoa azaltzea merezi du: Garrantzi handia izango duen ekimena martxan jarriko dugu legegintzaldia hasi bezain pronto eta nolako herria nahi dugun marrazteko baliotsua izango da. Herritarren nahiak nola aseko ditugun planteatu behar dugu eta ariketa hori usurbildar guztion elkarlanean burutu nahi dugu, prozesu parte hartzaile bat bideratuz, horren ondorioz Plan Estrategiko bat diseinatuz.

Hona hemen, asko laburbilduz, gure programaren ardatz nagusi batzuk:

Hirigintza eta Azpiegiturak: Eroso bizi-tzeko Usurbil bat eraikiko dugu eta etxebizitza eskubidea bermatzea izango da lehentasuna. Hazkunde orekatu bat behar du herriak eta gaur egun aurreikusten diren

eraikuntza proiektuekin beharrrak asetzen direla uste dugu. Etxebizitza hutsak alokairu sozialera bideratzeko asmoa dugu eta horretarako etxebizitza hutsen erregistroa eratu dugu, trataera fiskal berezia ezarri alokairuan jartzen laguntzeko. Proiektu berrien artean, etxebizitza sozialak dira gure apustua, tasatuak eta babes ofizialekoak. Azpiegiturei dagokionez, Usurbilen inposatu nahi dizkiguten azpiegitura erraldoiei moratoria ezartzeko ahaleginak egingo ditugu. Abian den Zatikako Lurralde Plana (Plan Parcial Territorial deritzana gazteleraz) horren adibide gordina dugu. Usurbilen eragingo duten hainbat neurri eta egitasmo aurreikusten ditu, herritarrekin eta udalarekin adostu gabe. Gutxi balitz, Zubieta mendiaren okupazioa datorkigu: errauste planta, espetxea, industriagune erraldoia... Udaletik ahaleginak biderkatu ditugu egitasmo horiek gauza ez daitezen.

Gizarte Zerbitzuak: Gaur egun Administrazioetatik aplikatzen ari den politika atzerakoia ondorioz, oinarrizko gizarte zerbitzuak pribatizatzen ari dira. Zerbitzu horiek (zaharrentzat erresidentziak, eguneko zentroak, etxetzeko zerbitzuak...) publikoak izatea

eskatzen dugu, eskumena udalarena izatea eta behar besteko finantziaketa izatea hori guztia kudeatzeko. Osasun zerbitzuei dagokionez, zerbitzu gehiago herrira ekartzearen aldekoak gara, anbulatorioa gainezka dagoela begibistakoa denez, eraikinaren handitzea Osasun Sailarekin adostu beharko dugu.

Hezkuntza eta Euskara: Udalek duten kompetentziak urriak direla jakinda ere, arlo garrantzitsua da herrigintzarako eta udalaren ardura nahitaezkoa da. Eskola publiko eta dohakoaren alde lan egingo dugu eta ikastolak norabide horretan urratsak eman ditzan babestuko dugu. Laburbilduz, herriko ikastetxe guztiez arduratuko gara, Haur Eskolaren proiektua eta Eskola Txikiak babestuko ditugu eta Udarregi Ikastolak behar duen eraikin berria egingo lagunduko dugu. Gaur egun martxan dauden ekimenak ere mantenduko ditugu eta beste egitasmo berriak bultzatuko ditugu herritarren partaidetzarekin. Euskararen arloan, Uemak zehaztutako bidea izango da guretzat erreferentzia eta euskararen erabilera areagotzeko ekimenak bultzatuko ditugu. Besteak beste, lan mundua euskalduntzeko bitartekoak jarriko ditugu.

Kultura eta Gazteria: Kultur plangintzaren diseinua bultzatuko dugu eremu honetan herrian lanean diharduten taldeekin, sortzaile berriei ateak irekiaz eta gazteak protagonismoa hartzera animatuz. Herriko ondarea zabaltzeko eta herriaren historia ezagutarazteko ekintzak bultzatuko ditugu. Bestalde, Gazteriaren askatasuna eta auto antolaketa errespetatuz, beraiekin harremana iraunkorra izatea beharrezkotzat jotzen dugu eta beharrei dagokionez, gazteek Usurbilen lan egiteko aukera izan dezaten ahaleginduko da Bildu, gazteek herrian bizitzeko aukerak izango du lehentasuna eta garraio publikoaren zerbitzua dauden beharrei egokitu dadin ere saiaturiko gara.

Auzoak: Bildurentzat aberatsa da udalerrria auzoz osatuta egotea eta Udal politikak antolamendu hori kontuan hartu behar du nahitaez. Zentrotik auzoetarako joerak indartuko ditugu, auzoetako bizitza soziala suspertzen ahaleginduko gara eta ekipamendu beharrei erantzuna emango diogu. Auzoei begira proposamen zehatzak ditugu eta auzoz auzo planteatuko ditugu baina denentzat baliagarri izango diren proposamenen artean, herribusaren zerbitzuaren alde ekingo dugu, zerbitzuak txoko guztietara zabaltzeko ahalegina egingo dugu eta auzoak lotuko dituen bidegorriaren plana martxan jarriko dugu.

Ingurumena: Zero zabor programa garatuko dugu, Usurbil "Zero Zabor herria" izatea lortu nahi dugu. Bide

horretan atez ateko bilketarekin harri handi bat kokatu dugu; bilketa hori errealitate bat da gure herrian eta Gipuzkoan ere zabaltzen hastea eragin du Usurbilek. Natur guneen kudeaketa, airearen eta uraren kalitatea eta energiaren kontsumoa kontrolatzeko plan bat egingo dugu. Nola ez, errausketa plantaren proiektua geldiaraztea lehentasuna izango du guretzat.

Nekazaritza: Sektore hau babestu behar dela uste dugu, estrategikoa baita ikuspegi ekonomiko, sozial eta kulturaletik. Gure eskuetan dauden bitartekoak ipiniko ditugu lehen sektoreko ekoizpena bultzatu, bertan eraldatu eta bertan kontsumitzeko. Egitasmo asko eta zehatzak ditugu arlo honen inguruan eta neurri bereziak hartuko ditugu hain garrantzi handia duen sektore honen garapena ahalbidetzeko.

Atal eta ekimen asko gertatzen dira aipatzeko hemen (berdintasunaren aldeko planak, inmigrazioaren gaiari heltzeko planteamenduak, kirola) baina ez dugu bukatu nahi esan gabe krisi ekonomikoa aintzat hartuz ekingo diogula Udaletxeko jardunari; herriko merkataritza sustatuz, langabe-tuentzako programak antolatuz, herriko ehun produktiboa sendotuz eta herrira ekartzen diren jarduera berrietan usurbildarrei lehentasuna emateko konpromisoa lotzeko saioak eginez; Kalezarreko gerontologiko berriarekin lotu den bezala, usurbildarrak lehentasunez kontratatuko baitira bertan.

Zerrenda



Zerrenda burua

Mertxe Aizpurua

- Mertxe Aizpurua Arzallus
- Alaitz Aizpurua Labaka
- Josu Portu Alzaga
- Juana Maria Urdampilleta Urdampilleta
- Jose Maria Rivadeneyra Sicilia
- Enara Arbizu Iurtia
- Iñaki Ugarte Agirre
- Miren Bengoetxea Zarauz
- Arantza Kamino Sagardia
- Ramon Udabe Borda
- José María Eizagirre Aranguren
- Irati Lasarte Agirre
- Ramon Iparraguirre Izagirre

Ordezkoak

- Mirotz Arrospide Landa
- Miren Nekane Sarasua Aizpurua
- Maria Aranzazu Unanue Ezenarro

udal hauteskundeak 2011

“Gure hauteskunde programa 5 ardatzetan antolatu dugu”

Gure hauteskunde programa 5 ardatzetan antolatu dugu: 5. edukiontzia-
ren ezarpena, hondakin bilke-
tari dagokionez; eskola publi-
koaren eskaintza eskaintzea;
etxebizitzak guztiontzat, bere-
ziki babestuak direnak; udal
funtzionamenduan gardentasu-
na eta partehartze aukera; eta,
herri-kohesioa.

Zergatik nahi dugu 5. edukiontzia?

Arduratsuk izan nahi dugu-
lako, baina askatasunez.
Sistema pertsonaren arabera
moldatzea lortuko dugu, eta ez
persona bilketa-sistemara.

Usurbildarrok birziklapena-
rekin eta konpostajearekin
kontzientziatuta gaudelako.
Lortzen diren aurrerapenen
berri emango dugu unean
unean eta modu argian; bestal-
de, lehenengo astean kaleetan
eta plazetan paperontziak jar-
tzeko konpromisoa hartzen
dugu.

Birziklapen-tasa hobeak lor-
tzen direlako. Gobernuko
lehenengo hilabetez zehar
papera eta ontziak jasotzeko
edukiontzia jarrito ditugu
(urdira eta horia).

Hondakin guztiak birziklatu
nahi ditugulako Atez Atekorik
gabe. Lau hilabeteko epe tran-
sitorio baten ondoren etxee-
tan sortzen diren hondakin
guztiak edukiontzien bidez
jasoko ditugu.

Autokonpostajearekin bate-
ragarria delako. Lur publikoa
eskainiko dugu, autokonposta-
tu nahi dutenek eta lurrik ez
dutenek horretarako aukera
izan dezaten.

5 edukiontzien sistema ero-
soagoa eta garbiagoa delako.
Lau hilabeteko epe transitorio
beraren barruan, Hiri-
Hondakinen Bilketa eta
Tratamenduaren Udal
Ordenantza sakonki berrikusi-
ko dugu.

Eta, gainera, Atez Atekoa
baino bilketa-sistema merkea-
goa delako. Guk egoera bide-
ratuko dugu: gobernuko lehe-
nengo hilabetez “txiringitoa”
den Garbitania enpresa publi-
koa -Usurbil, Hernani eta
Oiartzungo AA kudeatzeko
sortua- itxeko lehenengo neu-
rriak hartuko ditugu.

Zergatik bai Eskola Publikoari?

Ehunka usurbildarrek eska-
tzen dutelako. Hamaikabaten
gobernuak eskola publiko berri
bat ezartzeko aukera negoziat-
tuko du Hezkuntza Sailarekin.

Kalitate egiaztatua duelako.
Bi hezkuntza-eredu desberdin
egoteak hezkuntza-programa
hobeak eskaintzeko aukera
emango du.

Familientzat merkeagoa
delako. Hamaikabatek kontuan
du familia askok bizi duten
egoera ekonomiko zaila.

Udalerraren hazkundeak
eskatzen duelako.
Hamaikabatek aurre hartuko
die etorkizuneko beharrei.

Gaur egungo ikastola pribatu-
arekin bateragarria delako.
Hamaikabaten apustua bi hez-
kuntza-eredu desberdinen
arteko elkarbizitza harmoni-
koa izango da.

Etxebizitzak guztion- tzat, bereziki babestuak direnak.

Ezker abertzalearen etxebi-
zitza-politika ezer ez egitea
izan da, biztanleria kanpoko
pertsonekin eta familiarekin
haztea eragozteko; horrela,
gehiengo soziologiko bat
mantenduz, agintean jarraitu
ahal izateko, nahiz eta azken
20 urteetan ehunka usurbilda-
rrek beste udalerrri batzuetara
bizitzera joan behar izan
duten.

Lehentasuna izango du
Olarriondon eta Ugartondon
etxebizitzak eraikitzeak.
Hamaikabatek bi promozio
horiei behin betiko bultzada
emateko konpromisoa har-
tzen du, 168 BOE etxebizitza
berri eta beste 168 etxebi-
zitza tasatu usurbildarren esku
egon daitezen legegaldi berria-
ren barruan.

Lehentasuna izango du lur-
zorua erosteak. Hamaikabatek
etxebizitza sozialentzat eta alo-
kairukoentzat lurzorua eros-
teko konpromisoa hartzen

du, etorkizunean helburu horrekin erabil dadin.

Gainera: Alokairuko etxebizitzak bultzatuko ditugu; auzoen arteko interkonexioari eta mugikortasunari ekingo diogu; etxebizitzaren hobekuntza sustatuko dugu; eta, baserrietan etxebizitza gehiago onartuko ditugu.

Udal funtzionamendua gardentasuna eta parte-hartze aukera.

Ezker Abertzalearen azken urteetako kudeaketa iluna bezala kalifikatu liteke; baita, arrua, diskriminatzailea, oztopatzailea, interbentzionista... Herritarrekin, enprekin, elkarteekin eta oposizioarekin izan duten jokaera horrek, beldurra eta segurtasun eza besterik ez dute adierazten, gobernatzeko gaitasun ezaren ondorio direnak.

Lehentasuna izango du auditoretza ekonomikoa eta juridikoa egitea. Hamaikabaten gobernuak enpresa bati enkargatuko dio egin dezala gobernu zaharrak eta alkateak hartutako erabakien auditoretza ekonomikoa eta juridikoa.

Gainera: Udala erakunde gardena bihurtuko dugu; usurbildarren arteko komunikazioa bultzatuko dugu; gizarte sarean sorrera erraztuko dugu; eta, garrantzia duten erabakietan herritarren inplikazioaren alde egingo dugu.

Herri kohesioa

Ezin da lortu benetako gizarte kohesionatua gizarte hori osatzen duten kideen

artean errenta aldea handia bada, batzuk beren bizi-beharra aise beteak dituztenean eta beste batzuk larritasunean bizi direnean.

Udala izanik herritarrengandik gertuen dagoen erakunde, gizarte hausdurak antzeman ditzake eta eragin, bai bere bitartekoekin, bai beste erakundeekin elkarlanean.

Lehentasuna izango du krisi ekonomikoa aurre egitea. Zoru industrialak nola sortu errealtatez eta seriotasunez ekiteari konprometitzen gara. Bailara mailako Garapen Agentzia sortzeari ekingo diogu beste udalerriekin elkarlanean. Baztertze egoeran daudenei formakuntza eta enplegu aukera ematen jarraituko dugu. Hurbilago merkatal elkartearekin eta beste agente ekonomikoekin elkarlanean jarraituko dugu.

Lehentasuna izango du gastu soziala handitzeak. Hamaikabatek udal gizarte zerbitzuetako plantilla indartuko du, baita ere eskaintzen dituen zerbitzuak. Hamaikabatek lan egingo du legealdi barruan Zahar Erresidentzia errealtatea izan dadin.

Gainera: Tentsio soziopolitiko ezabatzen ahaleginduko gara. Elkartegintza bultzatuko dugu. Usurbildar berriak gogoz hartuko ditugu. Kultur eskaintza mantenduko dugu. Herriko segurtasun-eza arazoari helduko diogu eta kirol zerbitzuak hobetuko ditugu.

Guzti hau gure programaren laburpen bat besterik ez da. Osoa ezagutu nahi ezkeren www.h1usurbil.net gunean aurki zenezakete.

Zerrenda



Zerrenda burua

Luismari Ormaetxea

Luismari Ormaetxea Santsiñena

Josune Urquia Carrera

Imanol Zubiondo Olano

Maria de la Asuncion Izeta Beraetxe

Xabier Otaegi Goya

Pedro Ibarra Iraculis

Salome Portu Azpiroz

Josune Aramburu Bengoetxea

Elena Zaldua Otegi

Jokin Zubiaur Blasco

Esteban Irizar Garmendia

Manoli Amuchastegi Beristain

M.ª Luisa Añorga Bereziartua

udal hauteskundeak 2011

“Ireki bidea herriari, ireki bidea ezkerriari”

Gogo biziz eta indarberri-tuta, herriarekin herriaren alde lan egiteko asmoz aurkezten gara 2011ko udal hauteskundeetara. Herriarekin herriarentzat, baina ezkerreko eta euskal humanismoaren baloreak berreskuratze aldera, ezkerretik landuta herritarren arteko bizikidetzeta eta bizi-kalitatea hobetuko dugunaren ziurtasunez aurkezten gara.

Udala

Aralarren iritziz, udalak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak diren neurrian, berebiziko garrantzia du herritarrek entzungo dituen erakunde bihurtzea, herritarren parte-hartzea bermatuko dutenak eta herritarren eguneroko beharrei erantzungo dietenak. Horretarako, baina, ezinbestekoa da udalek finantzaketa egokiagoa izatea eta horretan lagunduko luke Euskal Autonomia Erkidegoak Udal Lege propioa izatea.

Herritarren parte-hartzea zehar-lerroko politika izango da Aralarrentzat, udaleko sail guztietan zabalduko dena, eta mekanismoak eta dinamika egokiak jarriko dituen elkar eragiteko.

Auzoak

Usurbil entitate propioko auzoz osaturiko herria da. Hori dela-eta, auzoek garrantzia dute Usurbilgo eraketan. Eta guk duten garrantzia eman nahi

diegu. Horregatik: Auzoetako ordezkariarekin aldizkako bilerak proposatuko ditugu auzoaren beharrak ikusi eta behar horiei, baliabideen arabera, era adostuan erantzuteko.

Hirigintza

Aralarren iritziz hazkundeak orekatua izan behar du eta herri nortasunari eustea funtsezkoa da. Bestalde, ondoko ekimenak bultzatuko ditugu: Alokairuzko etxebizitza publiko sustatu; etxebizitzak birgaitzeko eta inguruak biziberritzeko jarduerak bultzatu; etxebizitza hutsen erregistro municipal sustatu eta alokairuan jartzeko bideak erraztu; aurreikusten diren eremu berriak –Olarrondo, Ugartondo, Agerreazpi, Portalmusu (komentua), Portalmusubera...– herritarren beharretara egokitu garatu; egoera txarrean dauden kaleak eta urbanizazioak berrurbanizatzeko plana egin eta gauzatzen hasi; ur zikinaren sarea berritzeari lehentasuna eman...

Ongizatea, berdintasuna eta gizarte politika

“Errentagarritasun ekonomikoaren” izenean, herritarren ongizatea bermatzen duten zerbitzuak pribatizatzeko joera nagusitzen ari den honetan, Aralarrek sistema publikoaren alde egiten jarraitzen du argi eta garbi, hori baita etorkizune-

rako doakotasuna, unibertsaltasuna, berdintasuna, integrazioa eta solidaritatea bermatzen duen sistema bakarra.

Bestalde, laguntza premian dauden herritarrei behar duten laguntza emango dien gizarte-zerbitzua sustatuko dugu, Udaleko berdintasun teknika-riarekin elkarlanean Berdintasunerako Udal Plana garatuko dugu...

Hezkuntza

Heziketa eredu zabala eta herrira irekia bultzatuko du Aralarrek. Udalerrian dauden heziketa erakunde desberdinen artean elkar ulertzea eta ongi moldatzea izango dira Aralarren lanaren oinarriak. Irakaskuntzako sistema publiko defenditzen dugu hezkuntzarako eskubide unibertsala bermatzeko modu onena bezala, aintzat hartuz Usurbilen badela ikastola itundua, herrian ondo txertatua eta familia gehienen onarpena duena. Baina ezin dugu ahaztu badela eskola publikoaren eskaintza zabaltzeko herritar batzuen ekimena. Horiek horrela, hezkuntza planetan eragitetik, eta udala eta ikastetxeen arteko harremanak sakontzetik jo behar dugula uste dugu.

Kultura

Usurbilen dugun aberastasuna kontuan hartuta Aralarrek herriko sortzaileak eta talde eragileak izango ditu kultur

erreferente nagusizat eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko du.

Herriko kulturari buruzko hausnarketa prozesu bat egin berri da kultur taldeen parte-hartze zabal batekin. Prozesu horretatik ateratako ondorioak kontuan edukiko dira datozen urteetarako plangintza egitean.

Euskara

Administrazioak hizkuntza eskubideen berme izan behar du, eta horretan modu eredugarrian jokatu behar du, gainera. Hizkuntza politika ez da sail bakar baten zeregina, udal guztiarena baizik. Gai honek transbertsala edo zeharkakoa izan behar du udal osoan. Kulturarekin eta gazteriarekin batera sail propioa osatuko dugu eta onartu berri den IV. Hizkuntza Planaren alde egingo.

Ingurumena

Bat egiten du Aralarrek Usurbilgo itunarekin eta luzamendua eskatzen dugu. Aralar errausteko planta eraikitzearen aurka dago eta bat egiten du "zero zabor" ekimenaren espirituarekin. Ahalik eta zabor gutxien sortzearen eta sortzen dena ahalik eta gehien bereizita biltzearen alde dago Aralar. Atez ateko bilketaren alde gaude.

Alabaina, ez da zaborra eta honen kudeaketa ingurumenari eragiten dioten faktore baka-rrak. Ezinbestekoa da ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta errespetua berreskuratzea, naturguneak eta berdeguneak zaintzea eta berriak sortzea, heziketa-programak bultzatzea, ingurumenari buruzko ordenantza lantzea eta onar-

tzea, eta garapen jasangarriaren politika sustatzea Tokiko Agenda 21ek biltzen dituen ekimenak garatuz.

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza

Usurbil herri industrializatuaren artean badago ere, ezin ahaztu nekazari-herria izan dela eta, oraindik, lur eremu ezin hobeak dituela lehen sektoreko jarduerari heltzeko: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza. Lur horiek babes-teko eta lehen sektorearen ustiaketa berreskuratzeko eta bultzatzeko ahalegina egingo dugu.

Kirola

Agintaldi honetan Aralarren esku egon da Kirol Patronatuko Lehendakaritza eta bertan erakutsi ahal izan dugu nola ulertzen duen Aralarrek politikagintza, herri-gintza: elkarlana sektoreko inplikatu guztiekin.

Patronatuko kideekin eta kirol elkarte eta taldeekin egin den elkarlana handia izan da, eta Aralarrek egin den elkarlanari jarraipena eman nahi dio. Bestalde, kiroldegia handitzeak zerbitzuen berrantolaketa dakar berarekin, eta horixe da hain zuzen ere agintaldi honen hasieran bideratuko duguna.

Gazteak, nerabeak eta haurrak

Parte-hartzea eta gazteek proposatutako jarduerak bultzatuko dira. Gazteek eurek sortutako espazioak eta ekimenak autogestionatu ditzatela, gatazkak konpontzeko prozesuetan aktiboak izan daitezela.

Zerrenda



Zerrenda burua

Eustakio Arrojeria

Eustakio Arrojeria Eguzkiza
Jose Ramon Furundarena Salsamendi
Lontxo Zubiria Camino
Begoña Rekondo Echeverria-Berreyarza
Aranzazu Maiz Pagola
Maria Isabel Korta Etxeberria
Fernando Chueca Isasti
Begoña Elexpe Aginaga
Iñaki Zabaleta Gorrotxategi
Ana Isabel Illarramendi Matxain
Julia Jimenez Garcia
Emilio Marcos Del Arco
Xanti Illarramendi Matxain (I)

Ordezkoak

Juana Paz Fernández

udal hauteskundueak 2011

“Usubilek merezi duelako”

Etorkizuna lantzen ari gara. **Desadostasunak gainditu behar ditugu, eztabaidari beldurrik izan gabe.** Adostasun zabalak lortzeko lana egiteko garaia da, beti ere gehiengoak errespeta-tuz. Ildo nagusi hauek jarraitzen baditugu emaitza ezin hobea izango da. Usurbilek merezi duelako.

Usurbildarron ekarpenak ezinbestekoak dira gure herria lehiakorra izaten jarraitzeko. **Erakundeen arteko elkarlana bultzatuz** Usurbilek aurrera egingo du, baliabide hobea-goekin, zerbitzu osatuagoekin. Usurbilek merezi duela-ko.

Aurrerapauso berria emateko garaia da. Pauso honek bizikidetzaren hobetzen lagunduko digu. Usurbilek hala merezi duelako.

Usurbilen alde lan egiteko prest gaude, **gu ere herri-tarrak garelako** eta gure herriarentzat onena nahi dugulako. Horretarako ezinbestekoa da alderdi politiko guztien arteko harremana eta elkarlana.

Udalak jabetu behar du **jasaten ari garen kri-**

sialdi honetan Udal **kudeaketa** ona ezinbestekoa dela ondorioak arintzeko. Behar beharrezkoa da ere udal gestio indartsua enpresa berriak erakartzeko eta daudenak bertan gelditzeko.

Gizarte zerbitzuak dira gure lehentasunetako bat. Adineko eta ezinduen bizi kalitatea zaindu eta babestu behar ditugu.

“Zahartze Aktiboa”

Orokorrean **Egitarau Transbertsala** egitea, Adinekoei zuzendutako bereziki atalik egin gabe. Esparru honetan garatuko diren ekimenak Egitarau osoan egon daitezela.

-Adinekoen irudi baikorra sustatzeko ekimenak bultzatzea, bereziki komunikabideetan.

-Gure herri eta hirietan inguru erosoak lortzeko lana egitea. **Hiria adinekoen ikuspuntutik aztertzea.**

-Adinekoen borondatezko **Gizartea** sustatzea.

-Belaunaldi arteko harremanak ahalbidetzeko egitasmoak sortzea.

Hirigintza-Hezkuntza-Kultura-Zerbitzuak

Aurreko aldizkarian esan genuen bezala azkeneko lau urte hauek ez direla emankorrak izan, udal kudeaketaren lehentasuna zabor bilketari eman zaiolako eta gure ustez garrantzia duten beste gai batzuk arretera gabe gelditu direlako: krisialdi ekonomikoaren aurrean neurriak hartzea, hirigintza arloan emaitzak ez ditugu ikusi (babes ofizialeko etxebizitzak ez dira aurrera atera adibidez), ikastolaren gaia konpondu gabe gelditu da...

-Lau urte luze haue-tan babes ofizialeko etxebizitzarik ez da eraiki. Legealdia bukatze- dago eta gure ustez udal gobernuak ez dio gai honi behar den garrantzia eman. Gestioaren emaitzek azkar- ragoak izan behar dute. Udal gobernu honek gai honi dagokionez makaltasunez jardun duela uste dugu.

-Legealdi honetan **Ikastolaren gaia konpondu gabe gelditu da.** Momentu honetan garrantzia handia du erakundeen arteko elkarriketak martxan jartzea eta soluzio bide bat aurkitzea egoerari. Gai honek benetako saiakera

merezi zuen Udal gobernu honen aldetik. Oinarrizko eskubideak zaindu behar dira eta Hezkuntza da horietako bat. Udal gobernu honek arduragabe jokatu duela uste dugu gai honi dagokionez.

-Musika eskola berria behar beharrezkoa jotzen dugu. Gure herrian zorionez musika afizio handia dago eta daukagun eraikuntza txikia eta zaharkitua gelditu da.

Hogeita bost urteetan zehar Musika Eskola aurrera atera duten pertsonen esker daukagu Zumartek izan dituen emaitzak. Erakundeetatik babestu eta bultzatzen jarraitu behar ditugu horrelako proiektuak.

-Herriko hormak kartelez beteta daude. Dirudienek ohitu egin gara **pareta guztiak pintadaz eta kartelez beteta** ikustea-rekin. Horretarako lekuak egokitu behar dira baina herriko fatxadak garbiak egon behar dute eta udalak neurriak jarri behar ditu herriko paretak garbi egon daitezen.

-Zakarrontziak desagertu egin dira gure herrian. Kanean sailkako zabor ontziak behar dira. Ezinezkoa da kaleak garbiak

edukitzea zabor ontzirik gabe.

-Zenbait udal zerbitzu kontratatatuak izan behar lukete. Horrela zerbitzu hau merkeagoa, eraginkorragoa eta kalitate hobegokoa izango litzateke-elako.

-Oinezko pasabide arriskutsuak kendu egin behar dira: Troiakoa eta Santuenekoa. Herritar askok erabiltzen dituzte pasabide arriskutsu hauek. Ulegaitza da gaur egun horrelako pasabideak mantentzea.

Beste gai batzuk ere ezin daitezke ahaztu:

-Aisialdiari ere garrantzia eman behar zaio, udarako hondartzaren alternatiba bat behar dugu: igerilekua, belardi eta instalazio egokiekin merezi du gure herriak.

-Naturak eta aurre-rabideak nahita nahiez elkarrekin bizi behar dutela sinesten dugu. Politikak gizarteak dituen beharretatik sortzen dira eta era horretan gu gestio eraginkor baten aldekoak gara.

zerrenda



zerrenda burua

Andoni Atxega

Andoni Atxega San Sebastian
Josune Urkiola Larrarte (I)
Iñaki Illarramendi Etxabe
Joseba Irazabal Arraztio
Maria Jose Ibargoien Lizarazu (I)
Lourdes Jauregiberri Goenaga
Juan Jose Iparragirre Iturzaeta
Julian Beraetxe Aranburu
Begoña Arriola Iriondo
Jose Maria Zubiria Eguskiza
Juan Gorostidi Etxeberria
Elisabet Ezenarro Ganzarain
Eusebio Iparragirre Jaurrieta

Ordezkoak
Esteban Goenaga Otegi
Francisca Aierbe Agirrezabala
Juan Maria Jauregiberri Berakoetxea

udal hauteskundeak 2011

“Usurbil hobetzeko ilusioarekin aurkeztu gara”

PSE-EEtik legealdi lasai bat zin egiten dugu. Gainontzeko alderdi politikoe-kin lankidetzan aritzea zin egiten dugu eta udalgintza mailako lanetan herritarren partehar- tzea bultzatu. Arazoak ez dau- den tokian arazoak sortuko dituen udaletxerik ez dugu nahi, alderantziz, dauden arazo- en aurrean herritarrei irtenbi- dea bilatzen lagunduko dien udaletxea nahi dugu. Inongo momentuan ez bada logikoa aukeratzen ditugun instituzioek arazo artifizialak sortzen ibil- tzea, gaur egun bizi dugun ego- era ekonomikoarekin are larriagoa da. Horregatik Usurbil hobetzeko ilusioarekin aurkeztu gara eta gure bizilagunen konfiantza jasotzeko animuare- kin.

Beharrezkoa da lehenik eta behin, legealdi honetan izar izan den arazoaz hitz egitea. Atez ateko hondakinen biltzea.

Hondakinak

Arazo artifizial bat izan dela uste dugu, gaur egungo udal gobernu taldeak arazorik ez zegoen tokian arazo bat sortu du. Bizilagunak banandu egin ditu, eta ez du ezer hobetu. Horregatik, PSE-EE alderditik, atez ateko bilketa 5. edukion- tziarekin ordezkatzeari bultzatu- ko dugu. Baina ezin dugu burua galdu. Proiektuak logikarekin

burutu behar ditugu. Udal aurrekontua indarrean eta urte legislatiboaren erdian, 5. edu- kiontziarekiko aldaketak zer nolako gastua suposatuko luke- en aztertu beharko da. Eta aldaketa horrek udal aurrekon- tuak baldintzatzen baditu, 2012 urterako eskatu 5. edukiontzia- ren alde egitea eta, era berean, edukiontzien lurperatze pro- gresiboaren aldeko apustua egi- tea.

Herri mailako Garapen Ekonomikoa

Gaur egungo egoera ekono- mikoa kontuan izanik, beha- rrezkoak diren instituzio guz- tiekin lan egingo duen udaletxe baten alde egingo dugu, gure bizilagunen formazioa eta birzi- klatzea bultzatuz. Gaur egungo drama handiena 45-65 urte bitarteko langabetuena da. Berrikuntzara eta lkerketara bideratuta dagoen lan merkatu batean murgiltzeko zailtasun handiak dituzten langabetuak dira. Horregatik, lanean jarraitu ahal izateko beharrezkoak dituzten guneak eta okupazio- ak bilatu behar zaizkie. Udal eskuduntzak murriztzak dira zentzu honetan baina beti dago elkarlanerako aukera. Krisi garai hauetan da, are gehiago, politika sozialek inoiz baino garrantzia gehiago duten garaia.

Gizarte Zerbitzuak

Sozialistontzat, ezin dugu ahaztu funtsezkoa dela esparru hau. Herrian behar handienak dituztenei lehenetsuna emango dien udaletxearen aldeko apus- tua egingo dugu, beharrezkoa duten guztia eskainiko diena. Krisi garaian, politika sozialek inoiz baino garrantzia handia- goa dute.

Hiri Garapena

Herriko handitze ordenatua eta arrazoizkoa proposatzen dugu. Garapen urbanistikoan, Usurbilgo bizi-kalitatea man- tentzea inportantea da. Horretarako proposatzen dugu:

-Komun publikoak Artzabal parkean.

-Trenbideetako pasabideak kendu.

-Artzabal eta Kalezar artean espaloi bat eraiki, gaur egungo Haur Eskola inguruan.

-Ugaldea industrialdeko sar- bidea hobetu, trafikoa hobetu dadin.

-Artzabalen, Hirugarren Adinekoentzat jarduera fisiko- en parke bat egitea.

-Santuenea eta Zubieta arte- ko pasealeku-sarea hobetu. Etorkizunean, akaso, Aginaga auzoarekin lotu ahal izateko.

-Arazo gehien dituzten auzo- etan, higikortasun bertikalean aurrera egin.

-Herriko kaxkoan, errotazio bidezko aparkalekuen beharren inguruko azterketa bat proposatzen dugu. Zonalde horretan eta herriko beste zonalde batzuetan ere, aparkaleku falta dago.

Etxebizitza

Herrian, babestutako etxebizitza eskaintzan aurrera egin. Proiektu urbanistikoak arrazionalki egitea zin egiten dugu. Egungo udal gobernu taldeak, babes ofizialeko azken etxebizitzak azkarregi zozketatu ditu. Akaso hauteskundeengatik, presa zuela zirudien, baina etxe horiek eraikiko diren zonaldean oraindik ez dira obrak hasi, nahiz eta apirilaren amaieran hasiko zirela agindu zuten. Gainera uste dugu legealdi honetan sustatu diren partzela bakarrak izan direla horiek.

Hezkuntza

PSE-EE alderdiak tradizioz hezkuntza publikoa babestu du eta hau ez da egoera ezberdin bat izango. Herrian ikastola publiko baten ezartzea defendatuko dugu.

Euskara

Beste hizkuntza batzuekin berdintasunezko baldintza berdinetan defendatuko dugu euskararen erabilera. PSE-EEtik euskara guztion ondasun moduan ulertzen dugu, defendatu beharrekoa.

Herritarren partehartzea

Gardentasuna eta partehartzea oinarrizkoak dituen uda-

letxea aldarrikatzen dugu. Politika aldatu egin da eta politika egiteko moduak ere aldatu egin beharko lirateke, eta partehartzaileago egin. Erabaki ahalmena duten auzoak nahi ditugu, zerbitzu-erabiltzaile diren herritarrak nahi ditugu, herrian hobetu beharrekoaz bere iritzia eman eta entzungo zaien bizilagunak nahi ditugu.

Ahal den neurrian, udal txeko gastuak publikatzea zin egin nahi dugu, bizilagun denek ikus dezaten euren zergetako dirua non eta zertan gastatzen den.

On line Administrazioa

Udalerrri mailako tramiteak bideratu ahal izateko, on line bideak sustatuko ditugu, udal txea-bizilaguna harremana erraztu nahian.

Aukera hau aprobetxatuz, web orrialde berria ezagutzeko aukera aprobetxatu nahi dugu, www.socialistasguzpuzcoanos.com/usbil oraindik osatzen ari gara baina gogora ekarri nahi dugu elkar ezagutzeko gune izan nahi duela eta gure bizilagunekin harremanetan jartzeko tokia bihurtzea. Era berean, gure jardueren berri eman nahi dugu web orrialde horretan.

Azkenik, usurbildarrei agur bat bidali nahi diegu eta eskerrik eman gure proposamenak entzuteagatik, eta maiatzaren 22an bozka ematera animatu daitezten eskatu nahi diegu. Gudan jar dezaketen konfiantza itzuliko diegula zin egiten dugu.

Eskerrik asko.

Zerrenda



Zerrenda burua

Ricardo Crespo

Ricardo Crespo Rubio
Jose María Díez López
Natividad Cerdán Martínez
Enrique Ramos Ramos
Francisca Caballero Muñoz-Torrero
Fermín Orue-Echevarría Iturri
Carmen Alaminos Robles
Julián Gabino Morgado
María Jesús Prieto Martínez
Casimiro Romero Ortiz
María Enriqueta Rodríguez Collado
Rosa María Luis Luis
Ignacio Murillo Iñigo

udal hauteskundeak 2011

“Denentzat lan egiteko borondatea”

Azken legealdian, Usurbilgo Udal gobernu taldea ia eksklusibotasun osoan, iskanbila batean izan da San Marko mankomunitate barruan eta Usurbilgo herritarrak banatzen. Beraz, balorazioa oso negatiboa da.

Usurbilgo alkateak udaletxe talde txiki bat zuzentzeko helburua izan du eta hondakinen kudeaketarengatik Gipuzkoako udaletxeen gehiengoaren aurka aurrez aurre jarri dira.

Kaltetuak Usurbilgo herritarrak dira, atez ateko bilketak dituen gainkostuak bere gain hartu beharko dituztenak, inongo justifikaziorik gabe. Zeren ez da inolako onurarik atez ateko bilketan.

Usurbilgo herritarren interesen gaintik, arrazoi politiko eta partidistengatik udal gobernu taldea konfrontazioaren sinbolo izan da azken lau urteotan.

Oposizioak, bestetik, ezintasun kroniko bat du sinesgarria izango den gobernu-alternatiba osatzeko.

Usurbilgo herriak dituen premia nagusiak

Herritarren arazoak konpontzeko, ahalegin guztien bateratzea behar du Usurbilek. Udal gestiora gardentasuna eramatea helburu izango duen alternatiba bat sortzeko premia dago. Kolore politikoaren desberdintasunak kontuan hartu gabe. Herritarrei ongizatea ekartzeko, hartu beharreko erabakiak har ditzan.

Gazteen enplegua sustatzeko ahalik eta ekimen gehien jar ditzala martxan eta herriko

enpresa txiki eta ertainak lagundu ditzala.

Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko politikak babestuko ditugu.

Alokairu izaerako babes ofizialeko etxebizitzak garatzeko ekimenak sustatuko ditugu.

Herritar guztientzat baliogarri izan nadin

Alderdi Popularrak Gipuzkoako herri guztietan zerrendak aurkezten ditu, zeren herri ia guztietan badira PPri botoa ematen diotenak. Baina ez dute hautagai izan nahi zeren ez dira aske sentitzen aurkezteko garaian.

Betekizun moral bat da pertsona horiei guztiei PPri botoa emateko aukera ahalbidetzea. Beraiek PPri botoa emateko ahalegina egiten badute, alderdi honek ere botoa emateko eskubide zibikoa eskaini behar die, zerrendak osatzeko ahalegina eginez.

Ni Usurbilen aurkezten naiz pertsona horientzat eta Usurbilgo herritar guztientzat baliogarri izan nadin, sentimendu horrekin. Kolore politikoa- ren ezberdintasunik egin gabe, denentzat lan egiteko dudak borondate horrekin.

Gestio zorrotza eta eragingarria

Ez naiz alkate izango baina ANV-Batasunak utzi dituen okerkeriak zuzentzeko asmoa duenari babes emango diot. Gestio zorrotz eta eragingarri bat eginez, Usurbilgo herriak dituen arazoei aurre eginez.

Zerrenda



Zerrenda burua

Manuel Michelena

Manuel Michelena Iguarán

Emilio Escribano López

Antonia Merchán Sánchez

Rosario Rosalinda Márquez Márquez

Gema Punzón Cabanillas

Ramón Jiménez Gómez

Julio Basteiro Guerrero

M. Amparo Estilita Cuadrado Ramos

Beatriz Margarita Bernal Gaipo

Encarnación Moreno García

Pedro José Postigo Quintana

Maria Pilar Corrales Lantero

Benilde Olave Oliver

Ordezkoak

Omar Méndez López

Udal Hauteskundeak 2011

www.noaia.com



MAIATZAREN 22an BERTAN

UDAL HAUTESKUNDEEN JARRAIPENA EGINGO DUGU INTERNETEN

EMAITZAK, BALORAZIOAK...



facebook

www.facebook.com/noaia



Noaia

www.noaia.com

twitter



twitter.com/noaia

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Donostialdea eskualdeko zerrendak

PP

1. Juan Carlos Cano Aristoy
2. Manuel Michelena Iguarán
3. Jose María Murguiondo Casal
4. María Asunción Guerra Alonso
5. María Garmendia Martín
6. María Luz Anglada González
7. Iñigo Arcauz Ascargorta
8. María Teresa Cazenave Zarandona
9. Jose Luis Arrue Pinto
10. Vanesa Vélez De Pablos
11. María Iciar Aguilera De Juan
12. Jose Eugenio Azpiroz Villar
13. María Isabel Ugarte Fernandez
14. Almudena Gandasegui Anglada
15. María José Usandizaga Rodríguez
16. Ramón Gómez Ugalde
17. Francisco de Borja Semper Pascual

Ordezkoak:

1. Juan Andrés Segura Solla
2. Inés Baroja Horrillo

EAJ-PNV

1. Xabier Ezeizabarrena Saenz
2. Zorione Etxezarraga Ortuondo
3. Lourdes Alonso Sarasola
4. Martín Ibabe Ezeiza
5. Urkiri Salaberria Gracia
6. Mikel Pagola Tolosa
7. Jon Insausti Maisterrena
8. Eneko Goia Laso
9. Xubero Ubillos Apaolaza
10. Nerea Landaluze Gorostiaga
11. Andoni Amonarritz Gómez
12. Estixu Alkorta Barragán
13. Iñaki Aguirre Arizmendi
14. Arantza Zurutza Odriozola
15. Ianko Ganboa Sanz
16. Juan María Alkorta Etxeberria
17. Idoia Yeregui Telleria

Ordezkoak:

1. Maribel Vaquero Montero
2. Andoni Atxega San Sebastián
3. Iñaki Illarramendi Etxabe

Plazandreok

1. Arantza Campos Rubio
2. Irene Ormazábal Fernández
3. Eva Martínez Hernández
4. Angel Abalde Calparsoro (I)
5. Jose Ignacio Fagoaga Pérez (I)
6. Mikel Otxotorena Fernández (I)
7. Nagore Iturrioz López
8. Julian Pavo Giraldo (I)
9. Nieves Kortabitarte Zaldunbide
10. Mikel Salaberria Etxeberria (I)
11. Aurora Iturrioz López
12. Haritz Mendiguren Goienola (I)
13. Agurtza Zubero Agirregomezkorta
14. Juan Ramón Arnosó Muñiz (I)
15. M. Carmen Santos Eizagirre
16. Nicolás Bermejo González (I)
17. Mertxe Fernández Boga

Ordezkoak:

1. Eduardo Vidarte Charola (I)
2. María José García Urbieto
3. Francisco Ricardo Arruti Egiazabal (I)

PSE-EE

1. Rafaela Romero Pozo
2. Susana García Chueca
3. Iñaki Mirena Mugica Flores
4. Mikel Duran Gonzalo
5. María Jesús Egido Moreno
6. Hermenegildo Gonzalez Moran
7. María Lourdes Acevedo Beldarrain
8. Ricardo Crespo Rubio
9. María Rodríguez Rodríguez
10. Susana Corcuera Leunda
11. Jose Maria Diez Lopez
12. Oscar Jose Luis Murillo Perez
13. María Teresa García Cordera
14. Jose Pérez Domínguez
15. María Arritokieta Marañoñ Basarte
16. Barbara Dührkop Dührkop
17. Angel García Ronda

Hamaikabat

1. Jose Antonio Rekondo Sanz
2. Jaione Arratibel Arrondo
3. Luis Maria Ormaetxea Santsiñena
4. Isabel San Vicente Ribera
5. Antton Costa Casco
6. Karmele Osa Gonzalez
7. Bixente Arrizabalaga Bengoechea
8. Arantza Iztueta Azcue
9. Natxo Iceta Beraeche
10. Mikel Ubillos Salaverria
11. Arantza Echeberria Recondo
12. Kontxi Urio Berasategui
13. Iñaki Arratibel Olaciregui
14. Nekane Larzabal Oronoz
15. Mikel Zabala Arregui
16. Josune Urquia Carrera
17. Iñaki Alkiza Laskibar

Ordezkoak:

1. Ana Bereciartua Arriaran
2. Mariaxun Iceta Beraeche
3. Jose Ramon Guridi Urrejola

Aralar

1. Ernesto Merino Amiama
2. Jule Goikoetxea Mentxaka
3. Emilio Zubia Flaño
4. Uxue Garmendia Lopez
5. Lorenzo Garmendia Echeverria
6. Ainhoa Beola Olaziregi
7. Eustakio Arrojeria Eguzkiza
8. Maider Etxaide Rekalde
9. Xabier Peñagarikano Zubeldia
10. Mayi Bengoetxea Agirresarobe
11. Angel Vicente Calderon
12. Ana Etxarte Llanos
13. Antonia Pascual Molet
14. Iñaki Sierra Charola
15. Jose Ramon Furundarena Salsamendi
16. Belen Muguerza Eraso
17. Iñaki Albistur Marin

Ordezkoak:

1. Maria Angeles Amiama Arregui

Gipuzkoako Batzar Nagusiak

Donostialdea eskualdeko zerrendak

UPyD

1. María Inmaculada de la Riva Garriga
2. Andrés Gustavo Herzog Sánchez
3. Jonathan Calvo Rueda
4. María Teresa Sánchez Lasa
5. Ane Fabo Aranzabal
6. Gorka Maneiro Labayen
7. María Visitación Izaskun Fernández Ruiz
8. Francisco Javier del Hoyo Gómez
9. Alan Pérez Garro
10. María Victoria Ronco Navarro
11. Aitor Bilbao Rodríguez
12. María Ramona Fernández Ventoso
13. Melchor Rodríguez Álvarez
14. Evangelina Mediavilla Pérez
15. María Angeles Lizancos Aguerre
16. Ignacio Sanabria Dorronsoro
17. María Estibaliz Garmendia Alustiza

Ordezkoak:

1. José María Alvariño Pico
2. María Aranzazu Aranzabal Conde

Partido Liberal Independiente

1. Enrique Senra Lizarazu
2. José Antonio Salazar Ruiz de Loizaga
3. María Mozo Amilibia
4. José María Cristóbal Salvador
5. Elena Cobreros Bordenave
6. Carmen Cobreros Bordenave
7. Dolores Corrales Marcos
8. Susana García Cabada
9. José Antonio Calvo Baqueriza
10. Daniel Quintana Martínez
11. Gema Caballero Ugarte
12. Ricardo Rua Pérez
13. Álvaro Viguera Rozas
14. Ainhoa Renedo Otaegui
15. María Katixa González
16. Luis Ignacio Terrado Peralta
17. Luis Ortiz de Vicuña Ortiz

Bildu

1. Martín Garitano Larrañaga
2. Ricardo Burutaran Ferre
3. Miren Elene Armentia Artzak
4. Ainhoa Zabala Arreche
5. Enrique Martínez Florez
6. Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano
7. Jon Lasa Laboa
8. Mainer Carrere Souto
9. Jon Albizu Aguirrezabalaga
10. Miren Zarauz Bengoetxea
11. Itziar Martínez de Apellaniz Orcaiztegui
12. Andoni Gartzia Arruabarrena
13. María Cristina Alquezar Fernandez
14. Xabier Soto Garcia
15. M. Nekane San Sebastian Urretavizcaya
16. Irune Martínez Etxarri
17. Diego Barrado Sanchez

Ordezkoak:

1. Gorka Segurola Dorronsoro
2. Iker Goenaga Gubia
3. Ainara Rodríguez Zalacain

Berdeak-Los Verdes

1. María Ceferina Goenaga Lizarburu
2. Imanol Labaca Triviño
3. Miren Josune Garitaonandia Arrillaga
4. Fernando Aguirre Arrieta
5. Juan Ramón Aguirre Arrieta
6. Nadia Eremieva Ivanova
7. Rubén Parra Zufiaurre
8. Naia Ferro Zubizarreta
9. Salvador Azpiazu Aguirregomezcorta
10. Miren Uriá Arruti
11. Omar Elarrass Mancebo
12. Paola Emile Carmona Gonzalez
13. Pedro Múgica Echaniz
14. Miren Nekane Atorrasagasti Aranburu
15. José Cid Iruستا
16. Miren Nekane Aramburu Barrón
17. Vicente Pagalday Garitano

PUM+J

1. David Martín Sánchez
2. Miguel Pariente Torrontegui
3. Miriam Sánchez Luená
4. Markel Mendizabal Elías
5. Susana Hernández Gabarri
6. Andoni Durán San Emeterio
7. Milagros Pérez Botella
8. Jon Caspistegui Astiz
9. Allende Elorza Negueruela
10. Fco. Javier Gómez del Campo
11. Concepción Muñoz Aguado
12. Alberto Antón Sánchez
13. Rosa M.ª Pazos Millán
14. Iñigo Jiménez Bohoyo
15. M.ª Manuela Sánchez Sánchez
16. Rafael Giménez Jiménez
17. Adelaida La Casta Muñoa

Ezker Batua-Berdeak

1. Arantza González García
2. Mikel Izaguirre Rekondo
3. Ricardo Ortega González
4. Mila Larburu Aguirre
5. Joaquín Gómez Lima
6. Beatriz Fernandino Goitia
7. Jesús Uzkudun Illarramendi
8. Maite Hernández Pacheco
9. Luis María Moreno Mendizabal
10. Gema Peña Romo
11. Hugo Martín-Santos García
12. María Luisa García Erice
13. Gotzon Egia Goienetxea
14. Montserrat Nuet Pedraglio
15. Beatriz Oiarzabal Sánchez
16. Txema Mercado Acero
17. Antton Karrera Aguirrebarrena

(I) Independentea
Zerrenda hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetik
jaso ditugu.

36 urteotan, bost alkate

975. urtetik hona, bost alkate izan ditu herri honek. Andres Bruño izan zen diktaturaren ondorengo lehen alkatea eta zortzi urtez aritu zen alkate lanetan.

36 urteotan, hala ere, Joxe Antonio Altuna izan zen karguan denbora gehien egon zena. Martxoaren hasieran zendu zen Altuna. 16 urtez izan zen alkate.

Lau urtez alkate izan zen Martin Larrañaga. Baita Luismari Ormaetxea eta Xabier Mikel Errekondo ere. Ormaetxeak alkatetzara iristeko aukera berri bat izango du maiatzaren 22an.

Xabier Mikel Errekondok, ordea, ez du aukera hori izango, Alderdien Legearen ondorioz EAE-ANVko kideek ez dutelako aurkezterik izan.



GOIAN, EZKERRETIK ESKUBITARA, ANDRES BRUÑO, MARTIN LARRAÑAGA ETA JOXE ANTONIO ALTUNA. AZPIAN, EZKERRETIK HASITA, LUISMARI ORMAETXEA ETA XABIER MIKEL ERREKONDO.

PSE-EE
PSOE

Eman
botoa



Lehena, Usurbil

Ricardo Crespo

Zure Alkatea

www.socialistasguipuzcoanos.com/usurbil



bildu usurbil

bildueuskalherria

BILDUri babesa emateko ekimena dema plazan eta trikipoteoa bertsolariekin. BILDU gaitezen!



maiatzak **20**
20:00tan

eman
botoa



bildu

www.bildu.info



IREKI BIDEA USURBILEN



Aralar 2007an aurkeztu zen lehen aldiz udal hauteskundeetara Usurbilen. Orduan talde sortu berria zen, baina gogoz eta ilusioz beterik azaldu ginen. Herriarekin lankidetzan jarduteko asmo sendoa agertu genuen eta hauteskunde hauetan duela 4 urte eginiko eskaintza berresteko asmoz aurkezten gara.

BOZKATU

